

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



FUTBOLA: ALOÑA-MONDRA DERBIA OÑATIARREK IRABAZI DUTE /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko urriaren 14a • V. urtea • 216. zenbakia • DOAN BANATZEKO

BERGARA

Eguraldi txarrari aurre eginez, jende asko Elosuko Ferian /6

ASIER ALTUNA / ZINEMAGILEA

“Filma egiteko erraztasunak eman zizkigun Bergarako Udalak, baina ez du aprobetxatu areto bat jartzeko” /7

ESKORIATZA

Bi hotel zabalduko dituzte, Torrebasen eta erdialdean /6



ASTEKO GAIA: ORAIN, EPELEKO BIRIBILGUNE INGURUAN

Auto-ilarak, bukatzen ez den arazoa

Arrasatera bidean, Epeleko biribilgunean, auto-ilarak sortzen dira ia goizero, eta Elorregira eta harantzago iristen dira; hala, ibarreko zirkulazio handienetako lekuak kolapsatu egiten dituzten. Biribilgune horretan bat egiten dute GI-627 errepide zaharrak eta AP-1 autobide berriak. Ilarak sortzen dira Arrasaterako noranzkoan.

Arazoak ibarreko eta kanpoko langile askori eragiten dio. Foru Aldundiak dio GI-627ko bikoizte lanek konponduko dutela, baina gidari askok uste dute hortik ez dela etorriko konponbidea. Bitartean, erakundeek garraio publiko planak dituzte: datorren urterako autobus zerbitzua indartu gura dute. /3



ARGAZKI PRESS

Arantzazun ospatuko dute bihar landa eremuko emakumearen eguna

Landa eremuko emakumearen nazioarteko eguna da bihar, zapatua, eta jardunaldi berezia egingo dute goizean Arantzazun, Gandiaga topalekuan, Mendikoik antolatuta.

300 lagun inguru bilduko dira zapatu goizeko jardunaldian. Landa eremuan bizi diren emakumeak daude gonbidatuta, batez ere, eta agintariak ere ugarri izango dira. /4

Kalean da Gose taldearen lehen diskoa

Debagoieneko talde batek, Gosek, diskoa aurkeztu du joan den astean, Donostian. Datorren egubakoitzean, urriaren 21ean, etxean joko dute, Arrasateko 3.60 aretoan. Ines Osinaga (Ekon, Isarevolution) eta Iñaki Bengoa eta Tadeos (Bad f-Line) arrasatearrek osatzen dute Gose. Hirurendako ere, euren gainerako taldeen antzik ez duen proiektua da: musika elektronikoa eta trikitia bat etorrazten dituzte, eta letra freskoekin osatzen dituzte abestiak. Evaristok, Francisek (Doctor Deseo), Jimyk (Soziedad Alkoholika) eta beste batzuek parte hartu dute diskoan... /13-15

Goienka2a

**SEAT ALTEA
DEPORTIBOTASUNA,
DISEINUA ETA
TEKNOLOGIA.**

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**Bainu altzari eta osagaiak • Hidromasaje kabinak
Manparak • Eraikuntzako materiala**

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzereka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxe.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

HEDABIDEAK

Euskarazko hedabideek diru gehiago behar dute

Euskarazko hedabideek dirulaguntza handiagoak eskatu dizkiote Jaurlaritzari. Hain justu ere, beste eskaera batzuen artean, eskatu diote milioi bat euro gehiago euskarazko prentsarendako. Jaurlaritzari egin dioten eskaeraren berri emateko prentsaurrekoa egin dute euskarazko hedabideetako ordezkariak. /4



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak

Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu Udako Argazkien Asteleheneko Goienkaria I. Lehiaketako sariak. Andoni Altube arrasatearrak irabazi du lehen saria, *Ehiztari ehizatua* izeneko

argazkiagatik. Afrikan egin zuen argazkia, Beningo Ouidah herrixkan. Bigarren saria Miguel Angel Etxeberria oñatiarrak eskuratu du, *Fuengirolan ateratako Non*

daude Mikel eta Jon? argazkiagatik, eta hirugarrena, Zuhaitz Larrañaga bergararrak, *San Ferminetatik ihesi* argazkiarengatik (Mallorcako hondartza batean aterata).



SARI NAGUSIA.

Andoni Altube arrasatearrak irabazi du sari nagusia, argazki-kamera digital bikaina, **Kiñu argazki dendak** emana. Dendako Juanje Amasorrainek eman dio saria. Lagun batek aipatu zion lehiaketarena eta animatu egin zen.

3. SARIA.

Zuhaitz Larrañaga bergararrarendako da hirugarren saria, baina arreba Maitanek jaso du: bi pertsonarendako bazkari edo afaria Gatzagako **Gure Ametsa**. Hango ugazaba Marisarekin ageri zaigu.



2. SARIA

Miguel Angel Etxeberria oñatiarrarendako. Oso argazki-zalea da, eta lehiaketa askotan parte hartutakoa. Saria eman dio **Eroski Bidaiak** agentziako Bergarako bulegoko Karmen-txu Larrañagak: asteburu bat Kantabrian edo Asturiasen.

SARI BEREZIA

Lehiaketan parte hartu dutenen artean zozkatutako argazki-kamera digitala, **Mari Karmen Bonilla** eskoriatzarrarendako da.



Babeslea:



Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI bidaiak
merzei duzu

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

kiñu
argazkifilariak

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51

Arrasatera doan GI-627 zatia, bidegurutze barik, gurutze-bide

Lehen Labegaraietan sortzen ziren auto-ilarak orain Epelen daude

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko errepide sarearen azkeneko puntu beltza, orain arte behintzat, Arrasaten dago, Epeleko biribil inguruan. 07:30etik 09:00etara bitartekoa da epe kritikoa: orduan Arrasatera doazenek badakite zelako auto-ilarak sortzen diren. Elorregiko biribilera iristen dira, eta Oñati-Bergara ibilbidea egiten dutenak ere hantxe harrapatuta geratzen dira, eta ilarak Oñatira eta Bergarara sartzen dira. Kalbario handiena, Arrasatera bertara doazenek jasaten dute: hala, adibidez, 25 minutu inguruko bidea zutenek ordubete eman dezakete orain bidean. Ez hori bakarrik: herri arteko autobus zerbitzuak ere atzerapenak izaten ditu.

Epeleko biribila inauguratu zutenetik dator arazo konkretu hori, GI-627 errepidea eta AP-1 autobide berria biribil horretatik pasatzen dira-eta. Ibilgailu guztiak han batzen dira eta biribilak zein GI-627 errepideak ezin dute fluxu hori guztia hartu.

EZ DA ORAINGO KONTUA

Egunero, Gipuzkoako eta EAE osoko gidari asko pasatzen da puntu beltz horretatik; Arrasateko Udalak iaz egin zuen Mugikortasun Planaren arabera, Arrasate kanpotik egunero 7.635 bidaia egiten dira, Arrasateko eguneroko behartutako bidaien %35, eta egunero 61.000 auto sarrera eta irteera dago herrira. Debagoiendar askok Arrasaten lan egiten dute, eta lantegiak igarri dute arazoa: "Bergaratik datozen langileak kezkatzen dira irten orduko auto-ilaran daudela", dio Fagor Automazioneko presidentek, Aitor Irurek. Fagor Arrasateko arduradunak, Jose Antonio Alustizak, Zumarragatik bidea egiten du egunero, eta hau ere dio: "Orain ordu erdi lehena-



UBANE MADERA

Bergara norabidetik Arrasate edo Oñatira doazenek auto-ilaran harrapatuta geratzen dira.

Foru Aldundiaren esanetan, Epele eta Kaskonategi arteko zati bikoiztua da konponbidea

go irteten dut etxetik, eta lehen baino 10 bat minutu lehenago heltzen naiz, baina geldiuene luze batetik pasa ondoren. Lehenago irtetearekin ez da arazoa konpontzen". Dioenez, Bergara, Oñati, Donostia... aldetik datozen langileen ahotan dago "arazo latz" hori.

Erabiltzaile ohikoek jakin nahi dute arazoak zein konponbide izan dezakeen. Errepideen arduraduna Foru Aldundia da,

Mankomunitateak eta erabiltzaileek zalantzan jartzen dute irtenbide erraza dagoenik

eta Bidegi enpresa publikoak arazo eta konponbide konkretu bat ikusten du: Epele eta Kaskonategi arteko errepidea bikoizteko lanak. Hain zuzen, fluxu areagotu horri erantzuna eman nahi dio bikoizte horrek. "Aurrean genuen, errepidea bikoizten ari delako, arazoak egongo zirela, eta erabiltzaileen pazientzia eta elkarlana eskatzen dugu. Lanak abenduan bukatuko dira", dio Bidegik. Ibarreko trafiko pila-

Garraio publikoan, berri onak: autobus zerbitzua indartu egin gura dute, eta tranbia laster egin

ketak konpontzeko, "autobide handi bat egiten ari gara, eta errepidea moldatzen biribilera bidea errazteko. Oraingoan, inguru horretarako ez da beste lanik aurreikusten", gaineratzen du enpresa publikoak.

Auto-ilararen arazo endemikoa errepide zabaltze soil batekin bukatuko den ez daude ziur, ordea, erabiltzaileak; Mankomunitateak berak aitortu du hala izango den "zalantzak" dituela.

Gogoratu behar da trafiko kongestioa lekuz aldatu besterik ez dela egin: garai baten, Elorregin gertatzen ziren, biribila egin aurretik; autobidearen Bergarako zatia ireki zenean, pilaketak Labegaraietako biribilean sortzen ziren. Badaude arrazoiak pentsatzeko arazoa ez dela unean unekoa.

AUTOBUSA ETA TRANBIA

Auto-ilarek Debagoienak duen beste betiko gabezia bat ekartzen dute gogora: garraio publikoarena. Alde horretatik ere, datorren urtean, autobus publiko zerbitzua indartu gura dute Mankomunitateak eta Aldundiak, Mundumira jaialdiarekin egin zen esperientzia pilotuaren bidetik. Zerbitzua Pesa enpresak eskainiko du.

Bestetik, tranbiaren proiektuarekin dago. Zoritxarrez, atzerapen handiak izan dira. Orain hurrengo, ibilbidea, bere aldatetekin, udal guztiek onartu behar dute. Baina berri onak daude: Eusko Jaurlaritzaren 2006. urteko aurrekontuetan tranbiarendako diru kopuru bat dago. "Garrantzi handia du tranbia aurrera ateratzeko, eta asmo hori dugu", dio Garraio Sailak.

Garraio publiko onek arin dezakete arazoa; kontuan hartu behar da Arrasatera doazen autoen %70ean gidaria bakarrik doala. Kontua da ea debagoiendarrak gertu egongo lirartekeen ohiturak aldatzera eta garraio publikoa erabiltzera, kontuan hartuta gaur egungo auto erabilera altua garraio publiko ezagatik datorela, neurri baten, eta errepide gehiago egiteak ezin dezakeela arazoa berak bakarrik konpondu. Argi dago Debagoienak gauza asko behar dituela. Garraio publiko onak edo errepide modernoak eta egokiak, biak behar dira, baina, bakoitza bakarrik, herren geratzen da.

BESTE LEKU KRITIKO BATZUK Oñatin, Bergaran... ere auto-ilarak sortzen dira

Zoritxarrez, ibarreko errepideek gune ilun asko dituzte. Hala, Oñatiko GI-2630 errepidean, Zubillagara bitartean, Oñatiko bi gasolindegien artean ilarak sortzen dira egunero, hango errepidea konpontzen ari direlako. Bost hilabeterako lanak dira. Bestetik, Bergaratik Antzuolara joateko Urteagako errepidea itxita dago, eta, saihezbidea hartu behar denez, Labegaraietako biribilean arazo larriak sortzen dira.

GARRAIO PUBLIKOA Aldundi eta Jaurlaritzarekin hitz egiten ari dira ibar erakundeak

Autobus zerbitzu indartua urte hasierarako gertu eduki nahi dute Mankomunitateak eta Aldundiak. Oraindik ez dute zehaztu maiztasuna. Mundumira izan zirean, ordu laurdeno irteten ziren autobusak.

Tranbiari dagokionez, irailaren 28an Bergarako eta Aretxabaletako Udalek Jaurlaritzari jakinarazi zizkioten ibilbidean egin beharreko aldaketak. Orain, erantzunaren zain daude.

BERGARATIK, AUTOBIDEAN Ilarak saihesteko, Labegaraietan autobidea hartzen dute batzuek

Bergara aldetik joaten diren gidari batzuek autobidea hartzen dute Arrasatera; ordainsaria da 0,45 euro. Baina hori ez da konponbidea ere: Epeleko biribilera lehenago iritsi bai, baina hara sartzea da kontua.

Behin-behineko neurriak eskatzen dituzte batzuek: "Lehen, ilarak zeuden lekuetan, udaltzainak egoten ziren; hemen ezin dute inor ipini trafikoa bideratzeko?", dio Soralezatik egunero joaten den langile batek.

MUGIKORTASUN PLANA Arrasatek irteten duten baino langileen bikoitza doaz hara

Arrasatek ez du trafiko egoera polita lehendik ere, iazko Udal Mugikortasun Planak argitara ekartzen duen moduan. Hala, 12.300 ibilgailu inguruko parkea zuen, urtero %2,4ko hazkundearekin. Behartuta, egunero 12.449 bidaia egiten zituzten arrasatearrek, gehienak autoz. Kanpotik askoz auto gehiago datoz joaten diren baino: 7.635 auto, 3.841en aldean; izan ere, lanpostuen erdiak Arrasatek kanpokoek betetzen zituzten.



Eguraldi lehorrak eragin du mahatsa itxura eta kalitate onekoa izatea; hala ere, gehienek iaz baino gutxiago jaso dute.

Kalitate oneko mahatsa jaso dute ibarreko lau txakolin ekoizleek

Lau txakolindegi daude ibarrean: Amatiño, Kataide, Otxia eta Upain

IRATI AGIRREAZALDEGI/GOIATZ ARANA

Txakolin mahatsa biltzeko sasoa da hau, eta gure ibarreko mahasti jabeek egin dute aurten lan hori. Guztira, lau dira txakolindegiak Debagoiengan: Bergaran, Amatiño; Arrasaten, Kataide eta Otxia; eta Upain, Oñatin.

Bergarakoak izan dira goiztiarrenak. Amatiñon orain dela hiru aste batu zuten mahats uzta. "Aurten inoiz baino goizago ibili gara bilketa egiteko orduan. Urtea lehor samar joan da, eta horregatik aurreratu egin gara batzerakoan", esan digu Karlos Mendizabalek. Haren esanetan, "eguraldi lehorrak bi alde ditu: mahatsaren itxura askoz hobea da, kalitatez hobea izango dela dirudi; baina jasotako kopurua txikiagoa izan da". Txakolina kupeletan daukate dagoeneko.

Arrasateko Hegiaundi baserrian, berriz, orain dela bi aste egin zuten bilketa. Hango Jabier Agirrek esan digunez, "iaz baino

mahats gutxiago jaso dugu aurten, baina oso kalitate onekoa. Sekula izan dugun mahatsik onenarikoa da aurtengoa". Mahatsaren kalitatea ona izanik txakolina ere ona izango dela aurreikusitako dute. "Upategiko prozesua gertutik jarraitu behar da orain, eta gero jendeak esango du txakolina ona den edo ez".

Bedoñako Artazubiaga baserrikoek asteburuan batu dute mahatsa familia giroan. Mahastien jabe Felix Etxagibelek kontatu digu lan hori orain 15 egun egitekotan ibili zirela: "Azkenean aste pare itxaron eta arriskatzearabaki genuen. Denbora tarte horretan primerako giroa

egin du, eta mahatsak heldutasun puntu ona harrapatu du. Pozik nago apustua irabazi dutelako".

Oñatiko Upain baserriko mahastietan ere joan den astean jardun zuten lanean. Guztira 20.000 kilo inguru batu dituzte aurten: "Landare gazteak dira oraindik eta ekoizpena egonkortzeko pare bat urte behar dira oraindik", esan digute. Mahatsa batzeko ez ezik, fruituarendako ere eguraldi ona izan dute aurten. "Bero egin du, eta horrek eragin egin du, besteak beste, mahatsaren graduazio egokian. Aurten go mahatsa kalitate onekoa da; gero, probatu egin behar, txakolina nolakoa atera den jakiteko".

TXAKOLIN POLITA

Fruituaren kalitatea ikusita, aparteko gorabeherarik izan ezan txakolin polita espero dute. Ateratako muztioa negu partean zaintzapean izan eta gero, Gabon ostean sartuko dute botiletan, eguraldi hotzarekin. Ondoren, maiatz aldera egongo da txakolina probatzeko aukera.

*Gabon ostean,
botilan sartuko dute
txakolina, eta
maiatzean, edateko
moduan izango da*

Lau zauritu Bergaran izandako bi auto istriputan

Euria izan daiteke istripuen arrazoietakoa bat

I.A.

Bi auto istripu izan dira Bergaran asteen; Elorregiko bidegurutzetik gertu bat eta Antzuolarako saihebidetaren amaieran bigarrena. Lehenengoan hiru zauritu larri izan ziren eta zauritu bakarra bigarren istripuan.

Hiru lagun zauritu ziren eguaztenean Bergaran izandako auto istripuan.

Goizeko hamarrak aldera gertatu zen istripua GI-627 errepidean. Opel Corsa bat bidetik atera zen Elorregiko (San Prudentzio) bidegurutzearen parean.

Ondorioz, Bergarako hiru emakume larri zauritu ziren, eta suhiltzaileek ibilgailutik atera behar izan zituzten; eurretako baten egoera oso larria da. M.A.A., M.B.A. eta M.A.I. (19 urtekoak)

Mendaroko Ospitalera eraman behar izan zituzten.

FURGONETA IRAULI

Bestalde, eguen goizean ere istripua izan zen Bergaran, GI-632 errepidean, Antzuolarako saihebidetaren amaieran. Peugeot markako furgoneta irauli egin zen eta ondorioz, J.A.G. inzialdun pertsona bat zauritu egin zen; Arrasateko ospitalera eraman zuten.

Euria izan daiteke bi istripuen arrazoietakoa bat.

*Eguazteneko
istripuan hiru
neska zauritu ziren;
eurretako bat,
oso larri*



Uribarrikoak irabazle gastronomia lehiaketan

Astehelen iluntzean, Arrasateko Abaroa elkarteak, Debagoieneko erretiratuen gastronomia lehiaketako finala egin zuten. Guztira, bost bikotek hartu zuten parte: Abaroa, Basotxo, Musakola, Toki Argi eta Uribarri elkarteetakoak. Bakailaoa gertatu zuten pil-pil erara, eta onena Arrasateko Uribarri elkarteak Sabina Altuna eta Felix Aiastuik gertatua izan zen. Hala, bikote horrek urriaren 20an Donostiako Alzako elkarteak jokatu den Gipuzkoako Txapelketan ibarra ordezkatu du. /I.A.

Ford**Focus** berria. **Kalitatea** bete-betean.



MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak,
irauteko eginek



Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan
profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

ANBOTOSTE
Sukalde Begetarianoa

Eguneko Menua, Entsalada Buffeta, Arrazioak,
Plater Bereziak, Pita Bokatak, ...
Pizzak, Crepak, ...
Teak, Infusioak, Zuku Naturalak, ...

**ELIKATU ZAITEZ
ERA OSASUNTSUAGO
BATEAN**

Larrea Plaza, 2
Tel.: 943 79 79 49

20500 ARRASATE
(Gipuzkoa)

RIP punk taldearen gaineko DVDa azaro hasieran jarriko da salgai

Goienako Iker Barandiaranek eta Iker Toledok egin dute lana

GOIENKARIA

RIP punk taldearen gaineko DVDa egin dute Goienako Iker Barandiaran eta Iban Toledok. Azaroko lehen astean DVDa aurkeztu eta salgai jarriko da. Taldeak zuzenean jo baina inoiz grabatu ez zituen 14 kantu ere jasotzen ditu, besteak beste.

Bilboko Kafe Antzokian izango da azaroaren hasieran RIP, punkaren 25 urteko historia bizia lanaren aurkezpena. Gainera, lan horrekin RIP taldeak zuzenean jo baina inoiz grabatu ez zituen hamalau kantuz osatutako bilduma emango dute opari.

Aurkezpenaren ostean, azaroko lehen astean, DVDa dendetan izango da eskuragarri 18 euroren truke. Goienako egoitzan eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen webgunean, berriz, 15 euroren truke erosi ahal izango da.

Goienako Iker Barandiaranek eta Iban Toledok Goiena eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearendako egin duten lana da DVDa. 25 urte betetzen dira euskal punkaren aitzindaria izan zen RIP talde arrasatearra sortu zenetik. Sasoi hura, orduko sentsazioak eta bizipenak gogoratzeko eta jasotzeko asmoz egin dute, hain zuzen ere lan hori.



RIPen kontzertuetako irudiak, besteak beste, batzen ditu DVD horrek.

TALDEAREN OMENEZ

“RIPeko abeslari zen Karlos Agirreurreta Mahoma hil zenean, GOITBko Iban Toledok eta biok erabaki genuen RIP taldearen gaineko erreportaje bat egitea GOITBrako. Lehenago, Eduardo Mancebo Portu ere joan zen, eta gure ustez taldeak merezi zuen omenaldi antzeko bat egitea, punka egiten aitzindariak izan zirelako eta utzi digutena oso garrantzitsua izan delako”, esan du Iker Barandiaran lanaren egileak.

Lan honek jasotzen ditu besteak beste RIP taldea gertutik ezagutu zuten musikari, kazetari eta bestelakoei egindako elkarrizketak; baita RIP taldearen gaineko materiala (soinua, irudiak...). Iker Barandiaranen esanetan, “lan handia izan da eta ordu asko sartu ditugu, baina plazerra ere izan da. Askotatu gaituen lan bat izan da, biok RIP oso gustuko dugulako eta taldearen ize-na dagokion lekuan jartzeko saia-kera egin dugulako”.

Laguntza handiagoak eskatu dizkiote euskal hedabideek Jaurlaritzari

Prentsarako milioi bat euro gehiago eskatu dute hainbat hedabidek

GOIENKARIA

Euskarazko hedabideek dirulaguntza handiagoak eskatu dizkiote Jaurlaritzari. Hain justu ere, beste eskaera batzuen artean, eskatu diote milioi bat euro gehiago euskarazko prentsaerendako.

Prentsaurrekoa egin dute oraingo astean euskaraz jarduten duten hainbat hedabideetako ordezkariak, Jaurlaritzari egin dioten eskaeraren berriz emateko. Euskarazko hedabideek aztertu dute sektorearen egoera eta beharrak eta hiru puntu prestatu dituzte euren eskaerak eta kezkek jasotzen dituztenak. Dokumentu hori sinatu dute gaur egun euskaraz lanean dabil-tzan ia hedabide guztiak. Goienak, hala ere, ez du dokumentua sinatu, hiru puntuetako bitan ados egon arren hirugarrenarekin ez duelako bat egiten. Sinatzaileen artean daude Topaguneko herri aldizkariak —GOIENKARIA izan ezik, aipatutako arrazoiarengatik—, Berria, eskualdeetako Hitzak, Argia, Nabarra, Elhuyar, Jakin, Bertsolari...

MILIOI BAT EURO

Dokumentua sinatu dutenek eskatzen diote Kultura Sailari, lehenik eta behin, dirulaguntzen zenbatekoa urtearen lehen sei hilabetekoan jakin eta ordaintzeko modua egin dezala. Izan ere, hedabideek, gaur egun, urtearen hondarrean jasotzen dituzte laguntzok, horrek sortzen dituen arazoekin.

Bigarrenik, eskatzen dute milioi bat euro gehiago sektorearendako, hauxe esanez: “Kultura Sailak jartzen duen diru saila ez da handitu azken bost urteotan, dirulaguntzetarako erabilitako 2005eko diru kopurua 2000koaren parekoa da: 3.800.000 euro, hain zuzen”.

Goienak ez du sinatu dokumentua, telebistarako ere beste milioi erdi euro eskatzen zituelako

HIRUGARRENEAN EZADOSTASUNAK

Hasierako bi puntu horiekin ados dago Goiena Komunikazio Zerbitzuak. Ez, ordea, hirugarrenarekin. Azken eta hirugarren puntuak tokian tokiko telebista digitalari egiten dio erreferentzia eta eskatzen dute “euskarazko hedabideak sor daitezen eta behar duten garapena izan dezaten garrantzitsua eta beharrezkoa da hasieratik laguntza publikoa izatea. 2006ko aurrekontutik aurrera beharrezkoa da dirulaguntzak gainontzeko hedabideentzako ere (ikus-entzunezko-entzako) handitzea”.

Honen inguruan, Goienak eskatu zuen hirugarren puntu hori aldatzea, besteak beste, ez zuelako aipamenik ere egiten urte askotan lanean diharduten tokiko telebisten gainean, GOITB kasu, eta prentsarako milioi bat euro eskatzen den moduan, telebistarako ere beste milioi euro erdi eskatzea proposatzen zuen Goienak. Goienarentzat ezinbestekoa da Telebistentzat dirulaguntzak handitzea. Sinatzaileek ez zuten onartu eska-ria eta horregatik ez zuen dokumentua sinatu Goienak.

DEBAGOIENEAN LABUR

Anorexia eta bulimiaren aurkako elkarteak sentsibilizazio kanpaina egiten dabil

Anorexia eta bulimiaren aurkako elkarteak, Acabe, sentsibilizazio kanpaina egiten dabil egunotan. Hain justu ere, informazio mahaiak jarriko dituzte hainbat herritan. Urriaren 14an eta 8an Bergaran eta Aretxabaletan, hurrenez hurren, izan ziren elkar-tearen gaineko informazioa banatzen. Urriaren 21ean, berriz, Esko-riatzen izango dira. Hain justu ere, 11:00etatik 13:00ak bitartean Azoka lekuan egongo dira.

Acabe elkartearen helburuak honako hauek dira: anorexia edo bulimia gaixoen eta senitartekoen bizi kalitatea hobetzea; gazte-ek, eta batez ere emakumezkoek, elikadura jokaeren nahasteen bidez jasaten duten arrisku larriaz gizar-teari informazioa eman eta sentsibilizazioa; eta, gaitz hauez kaltetuei eta hauen senideei informazioa, aholkua eta laguntza eskaintzea.

Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuen gainean norbaitek intere-sa edo beharra agertuko balu, honako hauek dira harremane-tan jartzeko bideak: 943 79 69 27 (Arrasate) eta 943 32 62 50 telefo-noak, eta gipuzkoa@acabeuskadi.org edo arrasate@acabeuskadi.org posta elektronikoa.

Aretxabaletako artisten jaialdia Hiruatxan kooperazio proiektu bat bultzatzeko

Aretxabaletako Hiruatx Gobernu Kanpoko Erakundeak kon-promisoa hartu du Ekuatore Ginean nekazaritza eta abeltzain-tzako garapen egitasmo bat finantzatzeko. Kooperazio honi eki-teko jaialdia antolatu dute urriaren 20rako Aretxabaletan. Basa-beazpin izango da 19:30ean eta herriko artistek hartuko dute parte: batetik, Beñat Zamalloak Eutsi Biziari bakarriketa antzeztuko du; bestetik, Musika eskolako trikitilariak eta herriko abesbatzak eta akordeoi orkestrak euren emanaldiak eskainiko dituzte. Sarre-ra doan da eta herritarrei gonbitea egin diete jaialdira joateko.

Aldarrikapen Gunea jarri du AHT Gelditu! Elkarlanak Eusko Jaurlaritzaren aurrean

AHT Gelditu! Elkarlanak Aldarrikapen Gunea jarri du urriaren 13tik 21era bitartean Eusko Jaurlaritzaren aurrean, Lakuan. Egun bakoitzean gizar-teko hainbat sektoretako ordezkariak izango dira han: Gipuzkoako herriak; EHNE eta baserritar kaltetuak; talde ekolo-gistak; gizar-te mugimenduak; talde politikoak; AHTren Aurkako Asanblada; sindikatuak; gazte erakundeak eta Bizkaiko herriak. Hila-ren, 22an AHTren aurkako manifestazioa izango da Bilbon. Bestal-de, PSE-EEk berretsi du *Euskal Y-a* garraio bide ekologikoena dela.

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Capellan - Apeztegia / Del Rey - Pascual

Gonzalez // Berasaluze VIII.a

Lau t'erdiko Txapelketa

Baleztena - Laskurain / Larralde - Zubieta

- Eguna: igandea, urriaren 16a.
- Ordua: 17:00etan.
- Lekua: Bergarako Udala Pilotalekuan.



Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com

ANTZUOLA

Urruti eta Gorriz arteko bidea urrian bertan konponduko dute

Urriko osoko bilkuran, hilaren 7an, Urruti eta Gorriz arteko bidea konpontzeko lanak esleitu zituzten. Construcciones Pera enpresak egingo ditu lan horiek, 92.486 euroko aurrekontuarekin. Lanak bukatzeko epea bi hilabetekoa zen arren, enpresak konpromisoa hartu du urrian bertan lanak amaitzeko.

ACROBAT READER IKASTAROA

Adobe Acrobat Reader ikastaroa egongo da hilaren 20an, eguena, KZgunean. 18:00etatik 20:00etara izango da. /A.I.

ARAMAIO

Kaleko margo lehiaketako lanak ikusteko erakusketa ipinita

Eguazten honetan egin zuten Kaleko 14. Margo Lehiaketako margolanen erakusketa ipini dute Sastiña ermitan. Hain zuzen ere, urriaren 22ra arte, zapatua, izango dira margolanak ikusgai, Itur Zuri Emakume Elkartearen eskutik.

Ordutegiari dagokionez, adierazi digute arratsalde zabalduko dutela erakusketa, iluntze partean pare bat orduz-edo; jendearen interesen arabera 17:00etatik edo 18:00etatik aurrera zabalduko dutela Bizente Goikoetxea plazan dagoen ermita. /U.M.

ELGETA

Hondarribiko arraunlariak omenduko dituzte urriaren 22an

Elgetako lagun talde batek Hondarribiko Arraun Elkartearekin du harremana eta inoiz hantxe izan dira arraunean. Hori dela eta, aurten Kontxako bandera irabazi duten arraunlariak omenduko dituzte urriaren 22an Elgetan. Udaltelean oroigarriak eman gero dizkiete eta gero lehiari jarduera dute sokatiran eta bola jokoa, elgetarrak Hondarribikoaren aurka. Gainera, Hondarribiko traineruak aurtengo denboraldian jokatutako estropaden irudiak eskainiko dituzte Espaloian. /I.A.



MIKEL LUPIAÑEZ

BERGARA

Eguraldi txarrari aurre eginez, jende ugari Elosuko Ferian

Euria eta haizea ez ziren oztopo izan Elosuko ganadu ferriara ohiko jendetza erakartzeko. Elur Txiki elkarteak pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin, eta, era berean, aurkeztutako ganaduaren kalitatea gorai-patu zuten. Besteak beste, hauek saritu zituzten: dagoeneko Elosun hainbat urtean saritu duten Antonio Olai-zola azpeitiarra (ganadu multzo onena eta blonda behi onena), Juan Mari Lizarralde (limousina), Pako Badiola (gascoine) eta Balentin Gabilondo elosuarrak, Mikel Juaristi azkoitiarra (idi onena), Juan Pedro Betegi (zaldia), Mikel Juaristi (moxala) eta Jose Ramon Aranguren (ahuntza eta ardiak). Goiz partean sekulako jende pila ferriako giroaz gozatu. Arratsaldean, herri kirolak izan ziren protagonista. /E.M.

OÑATI

Landa eremuan bizi den emakumearen eguna ospatuko dute Arantzazun

Landa eremuko emakumearen nazioarteko eguna da bihar, zapatua, eta jardunaldi berezia egingo dute goizean Arantzazun, Gandiaga topalekuan, Mendikoik antolatuta.

300 lagun inguru bilduko dira zapatu goizeko jardunaldian. Landa eremuan bizi diren emakumeak dandegonbidatuta, batez ere, eta agintariak ere izango dira: Izaskun Bilbao, Eusko Legebiltzarreko presidentea; Gabriel Inclan, Jaurlaritzako Osasun sailburua; Gonzalo Saenz de Samaniego, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua; Izaskun Moyua, Emakundeko zuzendaria; Rafael Uribarren, Gipuzkoako Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua eta Eloy Lopez de Foronda eta Eusebio Larrazabal, Arabako eta Bizkaiko Nekazaritza diputatuak.

ERRONKAK ETA OSASUNA

Bi hitzaldi egingo dituzte jardunaldi horretan. Lehe-

nengoan, landa eremuko emakumeak dituen erronkak eta arazoak izango dituzte hizpide. Lizarrako alkateak, Maria Jose Fernandezek, egingo du hitzaldi hori. Bigarren, berriz, landa ingurunean bizi den emakumearen osasunaz hitz egingo du Yolanda Perezek, osasun arloko ikerketa eta estatistika arduradunak. 10:00etan hasiko dute jardunaldia. Hitzaldiez gain, galderak egiteko aukera eta antzerki antzezpenera ere badute.

Joan den urtean Gasteizen egin zuten nazioarteko egun hau. Aurtengoa bigarren aldia da. /O.E.

Zertzelada

Landa eremuan bizi den emakumeak dituen erronkei, arazoei eta osasunari buruz hitz egingo dute biharko, zapatuko, hitzaldietan

ARRASATE

Udalak berretsi egin du ASPACE elkarteari lokala uzteko borondatea

Garunetako elbarritasuna duten gaixoez arduratzen den ASPACE elkarteak 1.000 m²-ko lokala eskatu dio Udalari. ASPACEren asmoa da Arrasaten 20 lagunendako egoitza zerbitzua ipintzea "eskualdeko gurasoek eta erabiltzaileek etxetik gertu dagoen egoitza-zerbitzu bat izan dezaten, garun elbarritasuna duten pertsonen-

dako". Kontua da hemendik gertuen Donostian dagoela halako egoitza bat.

Udalak onartu egin du eskaera, eta Zerrajeran eraikitzeaz dagoen erakinean utziko diote lekua.

SPACEk orain dela hiru urte eskatu zuen lokala. Eta Udalak onartu egin zuen eskaera. Orain, berretsi egin dute borondate hori.



MIKEL LUPIAÑEZ

Zerrajera inguruan eraikitzeaz dagoen eraikin baten utziko diote lekua.

ARETXABALETA

Gastronomia eta Folklore Jaia egingo dute domekan herriko plazan

Bederatzigarren Gastronomia eta Folklore Jaia antolatuta du Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegoak. Errioxa, Gaztela eta Leon, Galizia, Extremadura eta Euskal Herriko jatekoak eta edatekoak eskainiko dituzte herriko plazan. Dantzen eta jota abestien erakustaldia ere egingo dute.

11. PATXARAN LEHIAKETA

Domekan, gainera, Patxaran Lehiaketa egingo dute. 11:00etatik 14:00etara bitartean aurkeztu behar dituzte plazan. Sariak arratsaldean banatuko dituzte. /M.A.

ESKORIATZA

Bi hotel zabalduko dituzte udalerrrian; Torrebasen eta erdialdean

Aspaldi hasi ziren Torrebaso inguruan Mendigoia hotela eraikitzen, eta dagoeneko gauza gutxi falta da lan guztia bukatzeko; urtea bukatu aurretik inauguratuko dute. Hotela 85 logela izango ditu, eta horietako bi suiteak izango dira. Horrez gain, 300 lagunendako jangela-aretoa izango du, enpresek erabil dezaten edo ospakizunetarako.

AZKOAGA ETXEA HOTEL BIHURTU

Era berean, Azkoaga etxea hotel txiki bihurtzeko asmoa dute hango jabeek. Eta dagoeneko idatzita dute proiektua. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Egurraren tratamendua amaituta, zabalik dago museoa

Gatz Museoa hainbat egun egin ditu itxita, Garbi enpresakoak lanean ibili dira eta hantxe. Sabaiko egurrari sitsa antzeman zioten, eta kaltea handiagoa izan aurretik egurrari tratamendua ematea erabaki zuten. Lanok amaituta, oraingo astean zabaldu dute museoa.

LANAK HERRIRAINO

Orain arte goiko lurretan eta errepidean lanean ibili eta gero, Aikia enpresakoak dagoeneko iritsi dira herriraino. Hodi zaharrak aldatzen hasiko dira. /X.U.

Aupa *Etxebeste!* film luzea egin du Asier Altuna bergararrak Telmo Esnalekin batera. Hiru aste daramatza zinema aretoetan eta arrakasta handia izan du orain arte. Fenomeno hau nola bizi duten galdetu diogu *Kixi*-ri.

OIHANA ELORTZA

Pasa da uholdea?

Pasatzeko gogoarekin, behintzat. Azkenean, lehen bizpahiru asteak topean egiten dituzu, eta eguneroko bizimodu normalera bueltatzen zarenean, beti duzu elkarrizketaren bat edo beste.

Beraz, egunerokotasunera bueltatu gabe oraindik?

Saiatzen ari gara. Aste honetan, adibidez, Sevillan izan gara, aurre-estrenaldi bat egiten, ea zerbait saltzen dugun edo ez ikusten. Domekan, berriz, Nafarroa Oinezen egongo gara, eta momentuz, horixe da orain arte lotuta duguna.

Eta zer moduz pasa duzue orain arteko uholdea?

Oso pozik gaude. Jende askok ikusi du filma eta nabari da beste asko ikusteko gogoz ere badaudela oraindik. Ikusi duten asko irribarretsu atera dira zinema aretotik. Kritikak ere txarrak eta onak izan ditugu, eta hori ona da. Behintzat, filma ez da kaxa baten barruan gelditu, kalean dago eta bazter batzuk harrotu ditu.

Ze inpresio zenuen zuk filmaz, estreinatutako aurretik, eta ondoren?

Filma bukatu genuenean, argi genuen horixe zela egin gura genuen filma. Ez genekien ikusleari gustatuko zitzaien edo ez, baina guk lasai genuen kontzientzia, gura genuen filma egin genuelako eta emaitza gustatu egin zitzaigulako.

Eta estreinatutakoan, jendeak izan duen harrera ona ezusteko handia izan da, oso handia. Hasieratik hartu zuen jendeak ondo filma, saria eman ziguten, eta pozik gaude. Madrilen eta Bartzelonan ere, adibidez, ondo hartu dute filma, kritika nahiko onak iritsi zaizkigu bi hiriburu horietatik ere, eta, egia esatearren, gehiagorik ezin da eskatu.

Hala ere, benetan betetzen duena da ikustea jendea gustura ateratzen dela zinema aretotik gure filma ikusi eta gero.

Zenbat aldiz ikusi duzue zuk *Aupa Etxebeste!* filma?


Film osoa, hiruzpalau aldiz.

Eta zer ikusi duzue?

Lehendabiziko aldiz, filma bukatu eta astebetara ikusi nuen, laborategian. Bukatu berria zegoen, banekien ordurako ezin nuela ukitu, eta agian horregatik, akatsak besterik ez nion ikusten. Gogorra izan zen, benetan. Erosleendako proiektzioa izan zen, eta, egia esatearren, nahiko giro hotza zegoen. Bigarren aldiz lantalde osoarendako egin genuen proiektzioa ikusi nuen. Askok hobeto ikusi nuen orduan, giroa ere beste bat zen. Hirugarren aldiz Kurasaalean ikusi nuen, estreinaldian. Ordurako hiruzpalau hilabete pasa ziren filma ikusi nuen lehendabiziko alditik, jendea ere gurekin zegoela ikusi nuen eta disfrutatu egin nuen. Eta uste dut ez dudala gehiago ikusiko.

Kurasaaleko estreinaldira joan ziren asko lagunak ziren. Madrildora eta Bartzelonakora ere bai?

Lagun asko ditugu Madrilen ere, egia esatearren. Hala ere, oso lagun kritikoak dira haiek, zorrotzak, eta orokorrean asko gustatu zitzaizen filma. Baina estreinaldian



GOIENKARIA

Asier Altuna, 'Kixi'

ZINEMA ZUZENDARIA

“Azpitoluekin baino askoz kritikoagoa naiz ni bikoiztutako bertsioekin”

FILMAREN ARRAKASTA

“Gura genuen filma egin dugu guk, eta pozgarria da ikustea jendeak egin dion harrera ona; jatorrizko filmak botatzen dituzten zinema aretoetan ikusiko da”

ZINEMA ARETOA BERGARAN

“Filma egiteko erraztasun guztiak eman zigun Bergarako Udalak, baina ez du aprobetxatu aukera areto bat jartzeko; triste eta lotsagarria da zinema aretorik ez egotea”

gertatu zen hori. Uste dut Espainian ez dela askorik promozionatu filma. Apustua Euskal Herria izan da eta bai medioek eta baita kanpainak lagundu dutelako arrakasta izan du hemen filmak. Madrilen, hala ere, inor ez da enteratu film hau egin denik; 500 pertsona joan ziren Madrilen *Aupa Etxebeste!*-ren estreinaldira, baina hori Madrilerako ez da ezer.

Diru asko bideratu behar da filmaren publizitatera, bestela ez da ikuslearengana iristen. Normala iruditzen zait, gaine-

ra, ez iristea. Madrilerako eta Bartzelonara heldu da, adibidez, baina beste hiri batzuetara iristeko asko inbertitu behar da.

Mende honetako lehen euskarazko filma dela askotan esan dute. Presiorik, pisurik, sumatu duzue?

Bai, zera. Medioak alde batetik joaten dira eta zu bestetik. Guretako, logikoa eta luxua izan da euskaraz lan egitea. Gazte-leraz egin behar izanak izango luke pisua, baina proiektu honek ez. Etiketak, kopuruak eta antzerakoak ikusten eta esaten

dituzte eta saltzeko ondo etortzen dira datu horiek, baina guk lasai egin dugu lan.

Zer iruditzen zaizu euskarazko film baten gaztelerazko azpitoluekin jartzeari?

Euskaraz zinemarik egiten ez denean, ez delako egiten, eta egiten denean azpitoluekin jartzen baldin badizkiote jartzen dizkiotelako, beti dago zer kritikatu.

Ni askoz kritikoagoa izan naiz bikoiztutako bertsioekin. Gu kontratatu hutsak gara; ekoizleak saltzen du filma eta hark aukeratzen du horrela egitea. Nik neuk aterako nituzke kopia batzuk euskara hutsean, azpitoluekin gabe, baina zinema egiteak diru asko eskatzen du eta kopiak egitea ere garestia da, ez da CD bat kopiatzea. Filma euskaraz egin da, hari buruz hitz egiten dute, eta hori da ona.

Baina arraroa ere izan daiteke hemen azpitoluekin aurkeztea euskaraz egindako filma, ezta?

Ulertzen dut batzuek traba izatea eta nahastea, baina niri, behintzat, ez dit horrenbesteko minik egiten. Komertzialki oso zaila da kopia batzuk euskaraz bakarrik eta beste batzuk azpitoluekin ateratzea. Eta konturatu behar dugu hemen denek ez dutela euskaraz hitz egiten.

Zergatik zara kritikoagoa bikoiztutako filmarekin? Arrotza egiten zaitzulako?

Azpitoluekin ez didate trabarik egiten, baina bikoizketak gehiago molestatzen nau. Bikoizketa ez da gure filma; beste zuzendari bat dago eta ahotsa ere ez da aktoreena, beste film bat da eta ez nago oso ados kopia hori ateratzearrekin.

Euskarazkoa aurkeztu duzue estreinaldi guztietan?

Bai. Sevillan ere horixe gertatu da, euskarazkoa, benetakoa.

Hirietan badaude zinema areto bereziak jatorrizko filmak botatzen dituztenak. *Aupa Etxebeste!* filma ere zirkuitu horretan ibiliko da.

Arrasaten ere jende askok ikusi du filma. Oñatin hamar aldiz bota dute. Bergararrak herri bietara joan dira, Bergaran ez dute-eta zinema aretorik.

Eta triste eta lotsagarria iruditzen zait. Filma egiteko ez genuen inolako arazorik izan, erraztasun guztiak eman zigun Udalak. Hala ere, ez du aprobetxatu aukera beste zerbait jartzeko Novedades itxi zuteanean, gutxienez beste proiektu horiek guztiak bete arte. Orain etxeak bakarrik daukete Bergaran, kalean ere jende gutxi ikusten dut joaten naizen bakoitzean. Kultura proiektuak ez dute non egin, non erakutsi, eta pena da.

Frontoian botako dute filma Bergaran. Etorriko zara?

Hiru aste egin genituen grabatzen Bergaran. Oso giro ona sortu zen lantaldearen eta bergararren artean, eta gogoz geunden estreinaldi polit bat egiteko. Nik, behintzat, herriari eskertu nahi diot eta egun hori aprobetxatuko dugu.

Film laburrak egin dituzue orain arte. Zer moduz moldatu zara film luzea egiteko?

Ondo. Handiagoa eta luzeagoa da, aspergarriagoa ere bai une batzuetan, baina oso ondo. Film laburrak hiru astean egiten dituzu, gutxi gorabehera; luzea egiteko, berriz, urtebete osoa behar duzu eta askotan kokoteraino jartzen zara istorio berarekin atzera eta aurrera ibiltzen. Baina film luzeek ere badute euren alde ona; orain gertatzen ari zaiguna, adibidez. Film laburrak oso jende gutxi ikusten ditu, ez da horrenbeste ikuslerengana iristen.

Istorioak kontatzeko gogoz nago ni, baina ez naiz ezertara mugatzen. Orain, adibidez, arrantzako istorio bat kontatzen duen laburra amaitzen ari naiz; musika eta soinua falta zaizkit bakarrik.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 01
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Elkarrekin
lortuko dugu!

Zer gauza txiki eta xumea den elur maluta bat! Baina milaka eta milaka elkartzen direnean, zer indarra, eta zer edertasuna! Horixe bera da gure egoera: elkartasunezko milaka eta milaka elur maluta bilduz osatuko dugu Euskal Herri-ara presoak ekarriko dituen elurtea.

Bide horretan, joan zen egubakoi-tzean, hilero bezala, Euskal Presoak Euskal Herrira aldarrikatze elkartu ginen. Eta indarberiturik egin genuen: gure betiko aldarrikapena, Euskal presoak Euskal Herrira, zertarako egiten dugun zehaztu genuen, *Estatus politikoa orain* lelopean. Horrenbeste aldiz ukatua izan zaigun gure eta gure senide preso bizi-tza eskubidea bermatzeko, etengabe urratuak diren gure eta euskal preso politiko-oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta bi estatuek sakabanaketa politikarekin herri honi egiten dioten xantaia politikoa erekin, gatazka eta bere ondorioak luzatuz ezarria diguten zigorrarekin, amaitzeko.

Berriki, Espainiako Gobernuak berretsi du ez duela sakabanaketarekin amaitzeko inolako asmorik eta, euskal preso politikoei bizi osorako zigorraldiak ezartzen, osasun asistentzia ukatzen eta isolamendu galeri beldurgarriak euskaldunetz betetzen jarraitzen du, besteak beste. Sakabanaketa politikan sakontzen jarraitzen du Frantziako Estatuak ere, euskal preso politikoa sekula baino urrunago eta bakartuago mantenduz. Bakeaz mintzo zaizkigu, baina badakite hildako berriak eragingo dizkigutela, beraien kalkulu politikoen barruan bultzatzen dituzten hildakoak eta zaurituak. Zapatero, Chirac, gatazka konpontzeko baino luzatzeko apustu egiten jarraitzen duzue neurri horiekin guztiakin. Bada ordua xantaia politikoa egiteko neurri hiltzaile horiek behingoz alboratu eta, hitz politetatik haratago

ekintzetan oinarritutako pausoak eman ditzazuen, besteak beste, gure senideei estatus politikoa aplikatuta Euskal Herriratzuz.

Euskal gizartearen hitzarekin eta erabakiarekin ari dira jolasean: heriotza hauek, bizi baldintza gordin horiek, herri honek behin eta berriro euskal preso politikoa Euskal Herriratzeko egindako eskaerari bi estatuek emandako erantzuna dira eta. Nola lortu horrela konponbidea?

Guztion lana da Madrili eta Parisi presio eginez egungo sakabanaketa politika hiltzailearekin amaitu eta, euskal preso politikoa Euskal Herrian batuz, Kolektiboaren hausnarketek nahiz ekarpenek manipulatuak izan gabe bere tokia izango duten elkarrizketa eta akordioak bultzatzea. Bide horretatik etorririko da, hitz hutsaletatik haratago, edukiz beteriko konponbidea.

Den-denok beharrezkoak gara, nork bere izaera eta nortasunarekin, bakoitza bere sentsibilitatearekin, euskal sindikatuak gaurko elkarretaratzeekin bat eginez erakutsi duten moduan. Eta sektore gehiago bilduko dira hilero-hilero elkarretaratze hauetara. Lehen esan modura, denon lanari esker lortuko dugu Euskal Presoak Euskal Herriratzeko eta, errepresaliatu politikoekin lan eginez, gatazka politikoa behin betiko konponbide politikoa eta demokratikoa aurkitzea. Elkarrekin lortuko dugu! Animu eta aurrera!

BERGARAKO ETXERAT
Bergara

Aupa Jon Agirre,
Espetxetik
Etxebestera!

Laster batean, urtea beteko zaigu, Jonen senide eta lagunak, haren egoerari buruzko berri lasgarria aireratu zutenetik.

Jon, espetxean bahituta, oso gaixo zegoela. Premiazko ebakuntza biren beharra zuen. 2004ko Gabonak aldera izan zen.

Malagako espetxetik Langraitzera hurbiltzea eta ebakuntzok egitea lortu dugu, baina 2005eko Gabonak ere hurbil ditugu eta Jonek, aske behar zuen arren, oraindik ere, preso daukate.

Jonek osasuntsu behar zuen, baina gaixo dago, espetxeko bizi-baldintza eskas eraginez.

Jon 64 urte (25 kartzelan) betetzera doa. Jonek ez du nabaritu, aspaldion, urteko sasoi arteko ezberdintasunik, espetxeko horma ilunak ez baitira kolorez aldatzen sasoiaren arabera.

Duela 10 urte libre egotea zegokion, baina horretarako makurtu beharra zeukan boterearen aurrean.

Eta Jonek hori ez du onartu.

Jonek Euskal Herriaren alde jokatu du; beretzat ezer eskatu gabe.

Eta hori ez diote barkatu nahi. Espetxerik espetxe erabili dute 23 urtez. Orain, Langraitzeko espetxeko erizaindegian mantentzen dute, preso, euren legeen kontra. Bere etxetik kanpo.

Jonek gaixotasun larriak ditu eta aske behar du. Hartarako, 92. artikulua aplikatzea eskatu du. Eta hori bideragarri egiteko, denon elkartasuna behar da. Herritarron indarrak bakarrik atara dezake Jon dagoen ziegatik.

Jon Agirre Herri Ekimenak urtebete darama bere askatasuna lortu nahian; Baina horretarako herritar guztion laguntza behar dugu.

Arrasate eta Aramaio udalei mozio bana onartzeko eskatuko diegu, aipatutako 92. artikulua aplika diezaioten eta aske utz dezaten exijitzeko; Jon Agirre Herri Ekimenetik, baina, konfiantza berezia daukagu Debagoieneko herritarrengan eta eskatu nahi dizuegu berriz ere deituko ditugun mobilizazioetara etor zaitezela.

Neurri on baten, denon esku dago Jon Agirre ahalik eta azkarren aske geratzea. Eta arrazoi serioak daude ahalegin bat egin dezagun.

Hipertentsio Arteriala, Diabetesa, Neuropatia Diabetikoa, Hiperrurizemia eta Miopia ditu. Hori gutxi balitz, Artoplastia egin diote eskuineko mokorrean; eskuineko eskuan, aldiz, Dupuytren eritasunetik operatu zuten eta ebakuntza horretatik errekuiperatzen ari da. Ezkerreko mokorrean, berriz, Koxartrosia du eta Fibrilazio Aurikularra ere aurkitu diote. Honek guztiak osatzen duen koadro medikoa benetan larria da eta bere zaintza egokia egiteko, espetxeak eskaintzen ez dion egoera behar du. Jonek bere etxean behar du. Gaixo dagoelako eta bere zigorra beteta duelako.

Jonek bere etxea behar du ez besterik. Ez du eskatzen (gure artean hain fama-tua egin zaigun Etxebestek bezala), irabazi ez duen oporrik hartzea; ez du eskatzen besteren ezer; etxe berea baizik.

Aupa Jon Agirre bere etxean! Espetxetik, etxe-bestera! Espetxetik bere etxera!

JON AGIRRE HERRI EKIMENA
Arrasate-Aramaio

Telefono berriak GOIENKARIAN

Telefonoak aldatu ditugu GOIENKARIAREN Bergarako egoitzan. Horrenbestez, aurrerantzean hauxe izango da GOIENKARIAKO telefonoa: 943 25 05 01. *Berrigara*-koa, ostera, hau: 943 25 05 02. Eta bai GOIENKARIAKO zein *Berrigara*-ko faxa, beste hau: 943 25 05 13.

GOIENKARIA

Hemeroteka

Oia, botelloia

Oia. Bekerekeen Eden eder eten, seme. Zurrumurru usu ulu. Majo aritu gara bokalen apartheidean. Falta zirenak harripaka etorri diren arte. E eta u. Eup!

Oia? Egungo SMS hizkuntzatik Oia deskodifikatuz gero, zer dugu? Beteranook, ezer edukitzekotan ogia, gazte-gazteek berriz orgia. Oia-ren errimarrik errazena? Gazte-gazteek botelloia, veteranoook sermoia. E eta u? Gazte-gazteak sexu, veteranoook keXu. Honela bada... urriaren 2an Ibarra, txokolate edarra.

Ez dakit ba TMEOKo euskaldun des-pistatuaren antza hartzen ez ote nabilen. Despistean, jakina. Joan den asteko gai nagusiak, KMK'05, orrialde pila izan ditu egunkarietan. Eguraldia izan ezik dena ezin hobeto. Dena? Gehiena inongo duda barik, bai. Baina hor daude kaleko txutxumutxuak. Eta txortxorrean atzo bat zena, gaur lau, bihar hamalau. Zergatik ez da ezer azaldu egunkarietan? Gaiak merezi ez duelako? Ez ikusiarena eginez, arazorik ez balego bezala jarraitu dezakegula? Ez delako berria? Ez delako arazo? Oker ez banago hainbat eta hainbat traumatizata geratu ziren KMK-05eko Ibarra gunean ikusitakoak ikusita (beterano eta gazte, guraso, irakasle eta baita ikasle ere). Gaiari buelta eman behar badiogu, lehenengo eta behin kontuak diren bezala eza-gutu behar ditugu. Puntatik puntara. Gero denok izango dugu aukera gure ekarpenak egiteko, denok izango gara eta beharrezko gauzak bere onera ekartzeko. Bokal guztiak beharrezko diren bezala lortzeko des-traumatizazioa. Eta lortuko dugu.

J.J. ARRIETA
'Asteleheneko Goienkaria'. 2005/10/10

Euskaldunak eta '.cat'
domeinua

Katalanek .cat domeinua lortu dute. KZorionak. Haiek diote .cat domeinua-rena ez dela territoriala, baizik eta kulturala. Lorpen nazionalista bat bada behintzat, baina, ni, sarean, inon baino internazionalago eta internazionalistago sentitzen naiz, euskaraz egiten dudanean batez ere.

Lorpen abertzale honen baliagarritasunaz nire zalantzak ditut. Eibarnauten elkartekook, *Eibar.org* eta *Aurki.com* domeinuen jabe garelarik, aldatuko genuke *Eibar.eus* eta *Aurki.eus*-era? Nik ezeko botoa emango dut, bozketa iristen den unean. Horrez gain, beste kontu bat dago. Zein kapazak diren katalanak gauzak mugitzeko eta Interneten eragiteko, eta zein ezgauza, beharbada, euskaldunak. Ni ere pesimista samarra naiz geure gaitasunaren kontu honetan. (...)

LUIS FERNANDEZ
www.eibar.org/blogak/luistxo

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta
Itxaso Berezibar

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



TELEFONO ZENBAKI **BERRIAK**

Irakurle, hauek izango dira aurrerantzean
Goienkariako eta Berrigarako telefono zenbakiak:

Goienkaria

943 25 05 01

Iragarki Sailkatuak

943 25 05 01

Berrigara

943 25 05 02

Faxa

943 25 05 13

Hartu kontuan!

Behin asmatuta, nahikoa

Roberto Idigoras oñatiarrak egindako golak erabaki zuen eguazteneko derbia (1-0)

XABIER URTZELAI

Derbi klasikoa jokatu zuten Aloñak eta Mondrak eguaztenean: ondo jokatu barik intentsitate handikoa, eta borroka gehiagokoa. Lehenengo zatia oñatiarrendako izan zen; eurek izan zuten baloia gehien, eta orduan egin zuten gola. Bigarren zatian, baina, Mondrak berdinketa merezi izan zuen.

Eguraldia lagun, jende mordo hurbildu zen eguaztenean Azkoagain futbol zelaira. Goizeko euri tantek on egin zioten zelaiari; bestela ere, Oñatiko berdeguneak futboleant egitera gonbidatzen zuen. Norgehiagoka hasi eta berehala oñatiarrek erasora egin zuten, eta Gordobilen mutilak zain, kontraerasoan min egin guran. Minutuek aurrera egin ahala, Oruetaren mutilak lasaitu egin ziren, eta erdiko zelaian nahastu zen jokoa. Orduan ere, Oñatikoak gehiago izan ziren, bai airezko jokaldietan, eta baita baloia errekupekatzen ere.

Aloñaren gola baina, jokaldi azkarrean etorri zen. Elgarresta atezainak ondo atera (egin zituen geldituengatik baino, baloia ondo ateratzeagatik egin zion Mondrari min handiagoa), Aloñaren ezker hegaletik baloia loratuta erdiratu, eta bi bider pentsatu barik Idigorasen bolea barrura (1-0).

MONDRAREN AUKERAK

Lehenengo zatia amaitzeko minutu asko geratzen ziren, eta Mon-



MIKEL LUPIAÑEZ

Eguazteneko partiduaren irudi bat: Kepa Barbarias eta Aitor Lopez, Ekainen eta Robertoren begiradapean.

Aloña Mendi gehiago izan zen erdialdean; bai airezko jokaldietan eta bai baloia errekupekatzen

drak izan zituen berdinketarako gol aukerak, besteak beste, Ekain Garinek izan zituen bi aukera. Horrekin batera, kornerren bitartez Oñatikoan ate inguruan ibili ziren Arrasatekoak, baina arris-

Bigarren zatian Mondrak aukera garbiak izan zituen berdintzeko; banakoa merezi izan zuten

ku handi barik. Bigarren zatiaren hasiera makala izan zen, besteak beste, epaileak behar baino gehiago eten zuelako jokoa. Bigarren zatian Mondrak izan zituen gol aukera garbienak. Besteak beste,

zutoinera bidali zuen baloia zelairatu berri zen Aritzek, eta Julenek ere bere hanketan izan zuen banakoa egiteko aukera. Horrez gain, area inguruko falta jaurtiketetan ez Zubikaraik, ez Lopezek eta ezta Laspiurrek ere ez zuten asmatu.

Beste atean, Astolaren falta jaurtiketa Arrasatekoenak baino arriskutsuagoa izan zen, baina Aramaiokoak ez zuen Oier atezaina ezustean harrapatu. Azkenean, Robertoren golak eman zizkion hiru puntuak Aloñari.

Kirolabur

MENDIA/IRTEERA

Besaide Mendi Elkarrean antolatzen duen Gipuzkoako Bira izeneko irteerak dagoeneko bi urte egin ditu, eta urriaren 23an egingo dute azkeneko irteera. Agur modura, Besaidekoak Arrasate inguruan ibiliko dira Udaltxi itzulia ematea izango da eta helburua. Gero, Sara jatetxean egingo dute bazkaria.

Izena eman gura duenak datorren astelehenean eguenera arte izango du aukera, Besaideren egoitzan.

XAKEA/AZKEN PARTIDAK

Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldia jokatuko dute asteburuan. Eta, azken urteotan ez bezala, azken partidarako emozioa izango da, jokalaririk asko daudelako txapelketa irabazteko aukerekin.

Hala, azken jardunaldian bost jokalaririk daude lau punturekin berdinduta. Eta aukera txikiagoekin, baina hainbat jokalaririk daude 3,5 punturekin eta horiek ere ezustea eman dezakete azken momentuan.

KROSA/ARRAKASTA

Eguaztenean 200 lasterkerik hartu zuten esku Soraluze-Bergara krosek lehenengo edizioan. Gizonezkoetan Ekaitz Osa oñatiarra izan zen azkarrena (35:20), eta emakumezkoetan Libe Totorika (52:55).

Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldekoek oso balorazio positiboa egin dute, eta datorren urtean ere egingo dute proba. Gogoratu, bihar jokatuko duela Xabi Lekue taldekideak Hawaiiko Iron Man proba.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-mail onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4
/arregi
/atai
/azkarate
/joseba
/BZ-sistemas

/gallastegi
/garaia
/guztizeder
/korozabaleta
/lilura
/multiopticas

/ohiak
/okipark
/vitoria
/pando
/udalax
/udalaitz



IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43

OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42

FAGOR 



31

Eramangarri bat behar al duzu? Credigazte Ordenagailua

Orain Gaztekutxarekin, azken belaunaldiko Toshiba eramangarri bat eskura dezakezu, oso prezio berezian eta sinestezina den finantzaketarekin. Ordenagailu arina, praktikoa eta **WI-FI teknologiaz** ekipatua. Zure gustura mugi zaitezten.



Eramazu hau bezalako **PC Toshiba** bat finantzaketa apartarekin.

INFORMA ZAITEZ HEMEN
www.gaztekutxa.net

100 euroko diru-laguntza ikasleentzat!







Añai erretegia

- Eskaintza** **Bardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

- Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE**
943 79 85 33
- Txinatar jatetxea**
- Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
 - Aparkaleku ezin hobea
 - Janaria etxera eramaten dizugu
- Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

- Eskaintza** **Arane Erreka 30 / BERGARA**
943 76 97 01
- Eguneko menua
 - Karta
 - Plater konbinatuak
 - Ogitartekoak
- Berezitasunak**
- Behi txuleta
 - Bakailaua
- Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

- LEINTZ GATZAGA**
943 71 49 52
- Eskaintza**
- Ezkontzak
 - Jaunartzeak eta bataioak
 - Hiru jangela
 - Aparkaleku handia
 - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita



Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik



Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandetan itxita



Zuhaizti jatetxea

- Eskaintza** **Espoloia 6 / BERGARA**
943 76 59 22
- Eguneko menua, aste barruan
 - Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan
- Berezitasunak**
- Etxeko postreak

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a

Kultura
eta
aisialdia



Urriaren
14tik 21era



GOSE

**NATURALTASUNA ETA
AUSARDIA, MUSIKA ESTILOAN
ETA LETRETAN. GOSE DA,
IBARREKO TALDE BERRIA**

Udako oporrak beste proiektu bat mamitzen pasa zituzten Ines Osinaga (Ekon, Isarevolution) eta Iñaki Bengoa eta Tadeos (Bad f-Line) arrasatearrek.



Proiektu hori da Gose taldea. Joan den martitzenean aurkeztu zuten izen bereko diskoa (aldameneko irudia da diskoaren azala), eta hilaren 21ean, egubakoitza, Arrasaten kontzertua egingo dute.

Taldearen berezitasuna da ordenagailuzko musika trikitiarekin batzen dituela: estilo ausarta, abestietako letrak bezala. Naturaltasunez eta lagun askorekin eginda, euskaraz eta gaztelaniaz, norberak berezko zaion moduan abestuta. /14-15

LEIRE KORTABARRIA

MUSIKA/ GOSE TALDEAK LEHEN DISKOA AURKEZTU BERRI DU

Trikitia, musika elektronikoarekin

"ASKATASUN OSOZ" ETA NATURALITASUNEZ EGINDAKO ESTREINALDI DISKOAREKIN DATOR GOSE ARRASATEKO TALDE BERRIA

LEIRE KORTABARRIA

Trikitia eta musika elektronikoa batera daitezke, eta ederki bateratzen ditu Arrasateko talde berri batek, Gosek. Trikitia Ines Osinagak –Ekon, Isarevolution...– ipintzen du; musika elektronikoa, Iñakik eta Tadeosek –Bad f-Line– eta, denek, jarrera eta abesti ausartak.

Esplizituak, naturalak... Nahia go dute entzuleek definitzea taldea, eurek euren burua definitu baino; baina hitz horiek Gose taldearen ahotan daude euren izareraz berba egiten dutenean.

Ezohikotasuna musika estiloen ezkontzan hasten da: trikitia eta elektronikoa, ordenagailuekin egindako musika. Prodigy edo Chemical Brothers taldeetatik Maurizio edo Tapia eta Leturiaraino aipatzen dituzte eragin moduan. Taldekideen euren ibilbidean egon diren eraginak. Esti-

lo uztarketa horrek lekua utzi dio esperimazioari: sehaska kantak, tangoa, punk ukituak, dantzarako abestiak... daude Gose diskoko 11 abestien artean.

ABESTIAK, MODU NATURELEAN


Ez dira nahita horren bila joan, ordea: "Taldea hiru gara, bakoitza bere gustuekin, horietako batzuk komunak. Abestiak modu naturalean irten dira; ez dugu helburu finkorik izan. Askatasun osoz ibili gara eta, denboraz ere, lasai. Baina abesti guztien lotura da trikitia eta musika elektronikoa", dio Ines Osinagak, taldeko abeslari eta trikiti-joleak.

Abestiak hiruren artean konposatu dituzte, eta lagun askok kolaboratu dute diskoan: Evaristok, Francisek, Juan Sangrek... Diskoa Arrasateko Shot! estudioan grabatu zuten joan den udan, eta Londresen masterizatu dute: "Aurreko lan guztia geuk bakarrik egin genuen, eta ondo



Hiru abesti jo zituen Gosek aurkezpen egunean, Donostian. Hilaren 21ean, Arrasaten joko dute.

ARGAZKI PRESS



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA


- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE
Erakustoki eta lantoki berria
Debagoiena industrialdea
Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35**
Faxa: **943 77 31 20**

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**

Posta elektronikoa: ion.a.@euskalnet.net • www.ventaion.com



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Zer egin zabor-postatik libratzeko

Zabor-postak gure postontziak gainezkutzen ditu. **Birusek, spywareek, adwareek eta phishingek** gure sistema informatikoak arriskuan jartzen dituzte. Nola ekidin daitezkeen erakutsiko dizugu kasu praktikoaren bidez, eta gainera **doakoak eta kostu baxukoak diren soluzioak azalduko dizkizugu.**

Debagoiena
urriak 20
BERGARA

Miguel Altuna Institutua
(Elementala)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
ursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



e-gipuzkoa SPRI

etorri zitzaigun kanpoko ikuspuntu bat”, dio taldeak.

Dena berez sortu da. Taldea bera ere horrela osatu zen, orain urtebete inguru, Ines Osinaga eta Iñaki Bengoa gustuko musika egiten hasi zirenean, biei trikitia eta musika elektronikoa gustatzen zitzaizela konturatuta. Hiru abesti egin zituzten eta emaitzarekin pozik geratu ziren. Gero, Tadeos batu zitzairen. Oihuka diskoetxearekin grabatzeko aukera sortu zitzairen gero.

Lan horren emaitza, *Gose* diskoa, kalean dago, eta Interneten, berriz, webgunea: www.gose.info.

SEXUAZ ETA BESTE GAI ASKOZ

Estreinaldi diskoa Donostiako Pittilin Gorri sex-shopean aurkeztu zuten joan den martitzenean. Lekua ez zen halabeharrez hautatu: taldearen aurkezpen-gutunean dago abestietan sexuaz hitz egiteko duten modu zuzena. Inesek azaltzen du: “Bai, egia da, esplizituak gara. Sexuaz hitz egiteak oraindik deseroso sentiarazten gaituela dirudi, nahiz eta eguneroko gauza bat izan”.

Baina dena ez da sexua, jakina: diskoko 11 abestietatik bana-ka batzuetan lantzen dute gai hori. Dio Inesek: “Beste gauza

askoz hitz egiten dugu: gustatzen zaizkigun gauzak, gustatzen ez zaizkigunak...”. Abestien letrak ez dira ohikoak: “Pixka bat bereziak dira, bai. Gauzei buelta ematen dizkiegu. Ez zaigu gustatzen abesti bat entzun eta epel geratzea. Zerbait esateko aukera dugu, eta norbaitek hori entzuteko aukera”.

ARRASATEN JOKO DUTE LASTER

Hiru abesti jo zituzten aurkezpen ekitaldian, eta pozik geratu ziren esperientziarekin.

Zuzenekoetan, Inesek abestu eta trikitia joko du; Tadeos baxuaz arduratuko da eta, abesti batzuetan, gitarraz; eta Iñakik ipiniko du ukitu elektronikoa. Hori guztia Debagoieneko publikoari ere erakutsiko diote datoren egubakoitzean, hilak 21, Arrasateko 3.60 aretoan, hantxe aurkeztuko dute-eta diskoa etxean. Taldearen estiloari dagokion bezala, emanaldiak ez dira musika eta ahots soila; irudi proiektioekin borobiltzen dira. Gainera, taldeak ez du beti gitarra erabiltzen, eta horrek “harridura” sor dezakeela uste dute. Hala ere, eurek diote beste edozein talde bezalakoak direla: “Musika talde guztiek bezala, zuzenekoetan gurea defendituko dugu”.

Lankide ezagunak

Evaristo, Francis (Doctor Deseo), Juan Sangre (Ekon), Jimmy (Soziedad Alkoholika), Titino eta Txema (Bad f-Line), guztiek egin diote diskoari ekarpena. Evaristok abestu egin du, euskaraz, gainera; Francisek tango abesti bat kantatzen du; Juanek, Inesen taldeki- de izan zenak, bateria jotzen du; Titinok, Arrasateko lagun batek, musika elektronikoarekin lagundu du abesti baten; Jimmy abesti bat ekoiztu du; eta Txemak kantatu egin du.

“Plazer bat izan da eurekin lan egitea. Denak, pertsona eta musikari moduan, asko gustatzen zaizkigu”, esaten du Inesek. “Hasieran ez genuen uste kolaboraziorik izango genuenik, eta pixkana-pixkana agertzen joan dira. Lankide izan gura genituzkeen batzuk geratu dira, ea bigarren diskoan...”



Evaristo.



Francis (Doctor Deseo).



Juan Sangre.

Beste taldeak, osagarri

Musikan askotariko lanak egin dituzte Ines Osinagak, Iñaki Bengoak eta Tadeosek. Iñakik eta Tadeosek urteak daramatzate Bad f-Line musika elektronikoko taldean; Ines trikitilari moduan hasi zen, eta Ekon taldeko partaide izandakoa da.

Gose eskuartearen duten proiektuetako bat da, eta horregatik ez dituzte besteak alboratuko: hala, Iñakik eta Tadeosek Bad f-Line taldean jarraitzen dute, eta Ines, trikiti irakasle izateaz gain, Isarevolution rock taldeko kide ere bada. Proiektu guztiek elkar osatzen dute: “Bad f-Linek eurei eta Isarevolutionek niri, Gosek ematen ez diguna ematen digute, eta alderantziz. Etorriko dira garai lasaia gure beste taldeetan jarduteko”, dio Inesek.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo



Policlínica Gipuzkoa

ARRASATE

Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Urriak 14-21

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

MUSIKA

ARRASATE

► **The Real McKenzies (Kanada) eta Far From Finished (AEB)** taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan. 03:00etan, Asier (meataka!) disko jartzaileak emanaldia egingo du.

► **Lau taldek** joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan: Boogie Van, The 5 Twisters, The Lost Souls eta Lost Girls. 3 euro da.

BERGARA

► **Jam aretoak** honako kontzertuak antolatu ditu: SFDK, Bad Sound System eta No crew-Rap tado taldeak gaur, egubakoitza, 22:00etan; eta Chambao eta DJ gonbidatu bat bihar, zapatua, 22:00etan.

► **DJ Balza (K.P.K.)** disko jartzailearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 23:00etan.

ESKORIATZA

► **Hari laukote batek** emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, 22:00etan.

► **Enboskada eta Never Surrender** taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI

► **Jim TNT, Azkaiter Pelox eta Ivan el Peligroso** musikariek joko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

IKASTAROAK

ANTZUOLA

► **Adobe Acrobat Reader** izeneko ikastaroa emango dute eguean, hilak 20, KZGunean, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

ARETXABALETA

► **Film labor ikastaro praktikoa** emango du Atxabaltako Gazte Ekimenak bihar eta hilaren 22an, zapatuak, 16:00-20:00. Izena emateko azken eguna gaur, egubakoitza, duzue, Orly tabernan, doan.

► **Aredhana Yoga eta Psikoterapia Zentroak** yoga ikastaroa ematen du martitzen eta eguean, 10:00, 17:00 edo 20:00etan, eta garapen pertsonal ikastaroa hilean behin, zapatu goizez. Izena emateko, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

► **Oinarrizko Internet ikastaroa** emango dute hilaren 17tik 28ra bitartean KZGunean, 09:00etatik 11:00etara.

ARRASATE

► **Emakumeen historiaren** gaineko tailerra izango da urriaren 20tik 27ra bitartean Emakume Txokoan. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 41 39 telefonora.

BERGARA

► **Zer egin zabor-postatik libratzeko?** delako ikastaroa antolatu du Miramon Enpresa Digitalak eguean,

hilak 20, Miguel Altuna ikastetxean, 18:00etan. Argibideak, www.enpresadigitala.net/miramon/euskera/curso_descripcion.jsp?id=1 webgunean.

DEBAGOIENA

► **Capoeira ikastaroa** emango du Igor Ezpeletak. Astelehen eta eguaztenetan, Eskoriatzako pilotalekuko gimnasioan izango dira eskolak; martitzen eta eguean, Arrasateko San Viator Txiki ikastetxeko gimnasioan. Orduetgia da 19:15-20:45. Argibideetarako, deitu 625 77 22 95 telefonora.

ESKORIATZA

► **Euskara ziberespazioan** izeneko Internet ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 18:00etatik 20:00etara.

OÑATI

► **Ordenagailuen gaineko** bi ikastaro dago. Batetik, emakumeendako informatika ikastaroa hasiko da azaroan. Izena emateko, jo Ikas Hiru akademiara. Bestetik, etxetako ordenagailu sarean gaineko ikastaroa izango da. Izena emateko, jo Udal Teknologia eta

Informazio-Gizarte Zerbitzura (943 03 77 00 da telefonoa).

DEIAK

ANTZUOLA

► **Antzuloko baserrien** inguruko hitzaldia egingo du Josu Tellabide etnologoak eguean, hilak 20, Olanan etxean, 19:00etan.

ARRASATE

► **Ipuinaren ahalmena beldurraren aurrean** hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak martitzenean, hilak 18, Santa Marina auzo liburutegian, 18:30ean. Gurasoendako hitzaldia da.

BERGARA

► **San Martin argazki rallyko** diapositibak erakutsi eta sariak banatuko dituzte gaur, egubakoitza, Pol-Pol argazki taldearen egoitzan, 20:00etan.

► **Umeendako jolasparkea** ipiniko du Bedelkarrek bihar, zapatua, San Martin plazan.

► **Normalizazioa eta bakegintza Euskal Herrian** delako hitzaldia egingo du *Justicia y Paz* aldizkariko zuzendariak, Patxi Meabek, martitzenean, hilak 18, Miguel Altuna ikastetxean, 19:30ean. ► **Buru gaixotasunez eta birgaitzeaz** berba egingo du Juan Moro psikiatrick eguean, hilak 20, Miguel Altuna ikastetxean, 18:30ean. Agifes elkarteak antolatu du.

ESKORIATZA

► **Mikologiaren gaineko** ekintzak antolatu ditu Luis Ezeizako guraso elkarteak: gaur, egubakoitza, hitzaldia egingo du Satur Gonzalezek, Audioko Mikologia Elkarteko adituak, Ibarraundi museoan, 18:30ean; eta etzi, domeka, perretxiko erakusketa egingo dute ikasleek herriko plazan, 10:00etan.

OÑATI

► **Odola emateko** dei egiten dute gaur, egubakoitza. Txantxiku ikastolan aterako dute odola 18:00etatik aurrera. ► **Ikastolara gurasoen eskutik** delako hitzaldia izango dute Haur Hezkuntzako gurasoek eguaztenean, hilak 19, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.



Ezkontza Azoka Eibar 2005

Urriaren 22an eta 23an

Non: Armeria Eskolan (Kantoi gasolindegiaaren parean)

Orduetgia: Zapatuan: 17:00etatik 21:00etara. Domekan: 11:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 21:00etara.

Profesionalen erakusketak deskontuekin, dastatzeak, desfilea eta opari ederrak, horien arten: Kanariar irletara astebeteko bidaiak!

Sarrera DOHAINIK guztientzako.

Arrasatek DJ JT izango da bertan.



► MUSIKA

LAUAXETAREN OMENEZKO EMANALDIA, HAMAIKA MUSIKARIREKIN

Hamaika kantari batuko dira hilaren 18an, martitzena, Elgetako Espaloia antzokian, *Ehungarrenean hamaika* izeneko emanaldi berezia egiteko. Lauaxetaren omenez, haren testuak erabilia diskoa grabatu dute, eta Espaloioa izango da emanaldi horren estreinaldia; horren ondoren, bakarrik beste bost saio egingo dituzte Euskal Herriko beste hainbeste lekutan. Kontzertuan honako musikariak arituko dira: Mikel Urdangarin, Gari, Eñaut Elorrieta, Rafa Rueda, Jabier Mugurutz, Anje Duhalde, Txuma Murugarren, Petti, Xabier Montoia, Xabi Strubell eta Francis Diez. Kantari bakoitzak Lauaxetaren olerki bat aukeratu eta musikatu du; emaitza da hamaika unibertso desberdin.

Non: Elgetako Espaloia antzokian. **Noiz:** martitzenean, hilak 18, 20:00etan. **Sarrerak:** Salgai daude 8 eurotan.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Zinema

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Gastronomia eta folklore jaialdia** egingo dute etzi, domeka, herriko plazan. Lehenengo, kalejira egingo dute; gero, postuak ipiniko dituzte plazan.

► **Aretxabaletako Artisten Kultur Jaialdia** egingo dute egunean, hilak 20, Basabeazpin, 19:30ean. Bakarriketa, trikitia, abesbatza eta akordeoi orkestraren emanaldiak izango dira. Hiruatx elkarreak antolatu du, bere kooperazio proiektuen harira.

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► **Henry Bengoa inbentarium** delako bakarriketa egingo du Kandido Urangak egunean, hilak 20, udaletxe zahararen, 19:00etan.

ARRASATE

► **Zeta** antzezlan egingo du Hika taldeak etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean. Alessandro Baricco idazlearen izen bereko eleberrian oinarrituta dago.

ELGETA

► **666** antzezlan egingo du Yllana taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

IKUSKIZUNAK

BERGARA

► **Peru, eguzkiaren atarira bidia** izeneko ikus-entzuzkoa egingo du Asier Arantzabalek egunean, hilak 20, Aroztegi aretoan, 18:30ean.

► **28 letra eta 7 nota munduaren itzulua egiteko** ikuskizuna egingo dute Jabier Mugurutzak eta Patxi Zubizarretak egunean, hilak 20, Go-Jam aretoan, 19:00etan, Jardunek antolatuta.

OÑATI

► **Astronomiaren gaineko bi ikuskizun** izango dira bihar, zapatua: Esteban Esteban sestaoarrak eguzki-erloju ikusgarriak ipiniko ditu herriko plazan, 12:30ean; gero, 18:00etan, *Magia zientifikoa* ikuskizuna egingo dute Ivanovicha magoak eta bere laguntzaileak. Ilatargi Astronomia Taldeak antolatzen ditu ekintzok, gaztelekuaren 10. urteurrena dela eta.

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

Sr. y Sra. Smith

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Valiant

Zapatua: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ ESPALOIA ANTZOKIA

Comer, beber, amar

Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

Zehaztu gabeko filma

Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

La flaqueza del bolchevique

Eguena: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

Princesas

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Torrente 3

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Torrente 3

Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Una vida por delante

17:30, 20:00, 22:30.

De boda en boda

17:30, 20:00, 22:30.

Frágiles

17:30, 20:00, 22:30.

Aupa Etxebeste!

(euskaraz)
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:15, 20:45, 22:30.

Transporter 2

Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Juegos de mujer

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ FLORIDA-GURIDI

Princesas

17:30, 20:00, 22:30.

Lila dice

18:00, 22:30.

Siete vírgenes

17:30, 20:00, 22:30.

Obaba

18:00, 20:15, 22:30.

Otros días vendrán

17:30.

Sin fin

18:00, 20:15, 22:30.

El mercader de Venecia

20:00, 22:30.

El método

18:00, 20:15, 22:30.

Las llaves de casa

17:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Transporter 2

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Frágiles

16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Boogeyman, la puerta del miedo

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Amor en juego

16:00, 18:10.

El clan de los rompehuesos

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

El secreto de los hermanos Grimm

16:30, 19:30.

Sr. y Sra. Smith

22:00, 00:30.

De boda en boda

16:30, 19:10, 22:00, 00:30.

Torrente 3

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

La madre del novio

20:20, 22:30, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

De boda en boda

12:15, 15:30, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

Boogeyman, la puerta del miedo

12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

Cinderella man

19:00, 21:45, 00:25.

Princesas

12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Transporter 2

12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras

12:15, 16:15, 18:15, 20:15.

Charlie y la fábrica de chocolate

12:15, 16:45.

Vuelo nocturno

22:15, 00:15.

Torrente 3

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:20, 00:30.

El método

12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

Frágiles

12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El clan de los rompehuesos

12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:35, 00:55.

El secreto de los hermanos Grimm

12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.

Aupa Etxebeste!

(español)

12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Juegos de mujer

12:15, 15:35, 17:55, 20:15, 22:35, 00:55.

La madre del novio

12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

Cuatro hermanos

22:25, 00:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

Transporter 2

12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.

Frágiles

12:00, 16:05, 17:30, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

7 vírgenes

12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Una vida por delante

12:10, 17:15, 19:45, 22:10, 00:45.

Juegos de mujer

12:00, 17:00, 19:30, 22:05, 00:45.

Sin fin

22:20, 00:45.

De boda en boda

12:00, 17:05, 19:40, 22:15, 01:00.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras

12:00, 16:10, 18:15, 20:20.

Otros días vendrán

22:30, 00:45.

Torrente 3

12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

El secreto de los hermanos Grimm

12:00, 17:00.

El mercader de Venecia

19:30, 22:05, 00:30.

Obaba

19:30, 22:05, 00:30.

Vuelo nocturno

12:15, 20:00, 22:00, 01:00.

La madre del novio

12:15, 16:00, 18:10, 20:20.

Cinderella man

12:00, 16:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

Charlie y la fábrica de chocolate: ●●●● | *Aupa Etxebeste!*: ●●● | *Princesas:* ●● | *Obaba:* ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

LAS LLAVES DE CASA

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Gianni Amelio.

AKTOREAK: Kim Rossi Stuart, Andrea Rossi, Charlotte Rampling.

Gianni Amelio zuzendutako film batzuk gogoan izanez gero (*Lamerica*, *Niños robados*, edo orain estreinatua den *Las llaves de casa*), zuzendari italiarra orain egiten den zinemaren kontra doala konturatzen gara. *Lamerica*-n albaniarren arazoetara hurbiltzen zen, *Niños robados*-en familiarik gabe bizi diren haurren istorioa kon-

tatzen zuen, eta *Las llaves de casa*-n minusbaliatuak eta horiekin bizi diren pertsonak dira filmaren protagonistak.

Ameliok zinema soziala eta gizatiarra egiten du. Gure gizarte arazotatik ukitzen ditu, baina aldi berean, pertsonaia asko hurbiltzen da, horien oso erretratu epela eta sentikorra eginez. Naturaltasuna da *Las llaves de casa* ederki definitzen duen hitza. Ez du oso melodramatikoa izan nahi, eta ez du samurtasuna gehiegi erabili nahi, baina hori bai, ez ditu pertsonaien sufrimendua eta zailtasunak ahazten, eta horrela detaile txikiak eta eguneroko gauzak azaltzen oso film sinesgarria lortzen du. Zuzendariak kontatzen dizkigu hamabost urteko mutil minusbaliatu baten eta inoiz ikusi ez duen aitaren artean sortzen diren maitasun harremanak. Ikusten dugu nola aita poliki-poliki muti-



koaren munduan sartzen den eta mutikoa tratatzen ahalegintzen den, eta honekin batera hogeitortetako gau eta egun, bere alaba minusbaliatua zaintzen ari den emakume bat ezagutuko dugu. Horrela bi ikuspuntu desberdin ditugu: alde batetik, aitaren nahasketa eta ikaste prozesua eta, beste aldetik,

minusbaliatuaz arduratzen diren pertsonen pozak eta minak eta etsipen momentuak ikusten ditugu. Filmak, sentibiltate hungigarriak, gai honen gaineko argiak eta itzalak, pozak eta samin-durak erakusten dizkigu.

Ameliok kamera mugitzen du bere pertsonaia hurbiletik jarraitu nahian, horien aurpegiak erakutsi nahi ditu, pertsonaiei sentimendu eta sentsazio guztiak kanporatzeko. Eta gertutasun horrek lortzen du ikusleak ezagutzea pertsonaia nolakoak diren eta, ahal den neurrian, euren portaerak ulertzea. *Las llaves de casa* filmak erakusten dizkigu pertsonaiei eguneroko bizitza eta istorio txikiak eta, horrela, askotan hurbildu nahi ez dugun mundu batera eramaten gaitu.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2005/10/31, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.





IBARRA
REAL ESTATE
IBARRA

Ibargari 3 • BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 97 97

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa erdialdean 180 m².
- Duplexa erdialdean Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 50 m². Berritzeko.
- Erdialdea 78 m². Oso ondo.
- Erdialdea 120 m². Oso ondo.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.
- Bolu 82 m². Ondo.
- Barrenkalea duplexa. Oso ondo.
- Duplexa Bolun 90 m².
- Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Osintxu 100 m². Berritzeko.
- Mugertza 104 m². Terraza.
- Bolu 85 m². Ondo.
- Zubiurre 64 m². Oso ondo.
- Txalet abikia. Oso ondo.

Antzuola:

- Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
- Sagasti 88 m². Berritua.



DEBA GARAI
INMOBILIARIA

Teleforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Erdialdea 160 m². Garajea.
- Erdialdean duplexa 93 m². Berritua.
- Erdialdea 77 m². Oso ondo.
- Aranretza 75 m². Oso ondo.
- Erdialdea 68 m². Oso ondo.
- Matxialtegi 80m². Ondo.
- Maroko 60 m². Berritzeko.
- Elorregi 64 m². Berritzeko.
- Zubieta 80 m². Oso ondo.
- Duplexa erdialdean 170 m².
- Osintxu 85 m². Oso ondo.
- San Antonio 77 m². Ondo.
- Basarte 70 m². Oso ondo.
- Zabalolegi 73 m². Oso ondo.
- San Pedro 75 m². Berritua.

ELGETA:

- 70 m². Berritzeko.

SORALUZE:

- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.
- Sagar-Erreka 50 m². Oso ondo.

Iragarki sailkatuak

943 25 05 01 edo sailkatuak@goiena.com

ANTZUOLA

JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA ALOKAGAI EDO SALGAI.
943 78 70 66
635 75 72 71

eta larruzko eserlekuak. 617 73 87 49.

Suzuki Samurai autoa salgai. Luzea. 1989koa. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean. 639 13 11 49.

Vespa Piaggio motorra. 49 cm³, 600 euro. Deitu 21:00etatik 22:00etara bitartean, mesedez. 656 75 52 28.

KOOPERATIBEN GAINEAN JARDUNALDI INFORMATIBOAK

Nori zuzendua:

- Orain dela gutxi sortutako kooperatiben bazkideak
- Kooperatibaren bat sortu nahi dutenak

Edukiak:

1. Nortasun kooperatiboa
2. Esparru juridikoa
3. Bazkideak
4. Organo sozialak
5. Ekonomia-erregimena
6. Dokumentazio soziala
7. Kooperatiba klaseak
8. Eratzeko pausoak
9. Bestelakoak

Non: Nafarroa Etorbidea 17
Ordutegia: 10:00-13:00
Eguna: Urriaren 26an
Izenematea: Doan

Plaza mugatuak / Izen-ematea derrigorrezkoa

Debagoieneko Mankomunitatea
Garapen Agentzia
943793090



BERGARA

ZERBITZARIA BEHAR DA AZPEITXI JATETXERAKO.
943 76 55 00

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Bi logela. Ondo dago. 610 73 52 23 edo 607 95 79 11.

Bergara. Bidegurutzeta erdigunean, 36-3. Sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. 667 80 92 89.

Bergara. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai erdigunean. 106 m². 685 75 78 16.

Bergara. Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Hiru gela. Garajea. Eguzkitsua. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

Bergara. Etxebizitza salgai Teleforo Aranzadi kalean. 140 metro koadro eta altzariak ditu. 699 75 45 46.

Bergara. Berritua eta jantzi-ta. Bi logela, bainugela, jangela-egongela, sotoa. Guztia kanpoaldera begira. Prezio ona. 943 76 11 58.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai San Pedro kalean. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera. 943 53 26 43.

Lekeitio. Erdialdean. Bi logela. Ganbara (24m²). Bizitzeko hasteko gertu. 659 54 65 84.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. San Andres. Bikote batendako apartamentu aproposa errentan. 943 71 31 35 edo 696 72 27 00.

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

Oñati. Ikasleei edo behar puntuak dituztenei. Olakua. 639 47 63 92.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. 636 30 57 43.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Laguna behar dugu etxea osatzeko. Erdialdean. 605 75 61 68.

Aretxabaleta. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 605 77 46 57.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Makatzena auzoan garajea salgai. Telefonoa: 943 12 09 94.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea itxia Uribarri etorbidean, unibertsitate ondoan. Deitu telefono honetara: 943 79 33 48.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Lokala alo-

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA JATETXERAKO.
943 71 43 45

kutzen dut. 290 m² ditu. 610 25 46 69.

Eibar. Atikoa alokatzen da. Toki onean dago eta igogailua dauka. Deitu 22:30etik aurrera. 678 82 29 95.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Hamabost urteko mutilek lokala hartu nahi dute errentan. Ordaintzeko gertu, gehienez, 350 euro hileko. 686 67 26 62.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Etxeko lanak egiteko eta ume txiki bat zaintzeko emakumea behar da. Deitu 13:00etatik aurrera. 630 29 48 68.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eskalduna prest nagusiak eta umeak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 75 18..

Bergara. 25 urteko emakumea gertu orduka lan egiteko. Edadetuak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan jardungo nuke. 667 93 85 54.

Bergara. Garbiketara lanetan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 628 82 96 56.

BERGARA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETARAKO.
647 05 42 75

Bergara. Neska eskalduna arratsaldean umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

Debagoiena. Neska eskalduna prest arratsaldetan etxeko garbitzen edo umeak zaintzen lan egiteko. 669 14 33 65.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBHko 4. mailako ikasleari etxean eskolak emango dizkion pertsona behar da. 943 77 10 20.

502. EMAN

Antzuola. DBH eta DBHOko eskola partikularrak ematen dituzte. 16:00-18:30 orduetartean. 653 71 66 86.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeak laguntza eskolako emango nizkieke. 645 73 04 69.

Aretxabaleta. Ingeleseko eskolak ematen dituzte. 943 79 03 83.

Arrasate. Frantses Filologian lizentziaduna gertu eskolak emateko: frantsesa, latina, euskara eta gaztelania. Maila guztiak. Esperientzia. Prezio ona. 685 72 27 24.

ARRASATE. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska gertu eskola partikularrak emateko. 652 73 14 44.

Arrasate. Laguntza eskolak emango nituzke. Tituludun irakaslea. Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa, irakasgai guztiak. 699 29 22 41.

Debagoiena. Gitarra eskolak ematen dira hasiberriendako. 35 euro hileko. 677 78 31 56.

Debagoiena. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Ikasgai ugari. Esperientzia handia. 630 71 35 83.

Ingeleseko eskolak emango nituzke Bergaran. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei. Ander. 690 20 54 75.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Rover 200 autoa salgai. Diesela, 2000 motorra. SS-BB, egoera onean. 619 06 41 08.

Ford Transit autokarabana salgai. 2.5D Riviera. 4-5 pertsonarentzako. Ondo zaindua. 13.000€. 653 71 49 70.

Ford Fiesta Diesel autoa salgai. MP3 irratia. Zortzi urte. 2.400 euro. 628 85 92 88.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Mercedes Vito L salgai. 2003ko uztailekoa. 30.000 km. Lo egiteko gertatua. 635 86 44 16.

Opel Vectra DTI familiarra. Osagarri guztiak ditu. 1998koa. Ondo zainduta. 627 93 09 42.

Seat Cordoba TDI Sport autoa salgai. 110 zaldi. Hiru urte. 45.000 km. Aire girotua

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkume arrak oparitzen dituzte. Hilabete inguru daukate. 943 53 33 92.

704. BESTELAKOAK

Setter Ingeles arrazako bi txakur aurkitu ditugu Oñatin, Zapata inguruan. Baserrian hartu ditugu. Jabeak dei dezala. 610 98 28 35.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Gitarra akustiko berria (hiru hilabete). Takamine. Urdina. 400 euro. 677 78 31 56.

Karabana salgai. Roller markakoa. Bañares kanpenean dago (Errioxan), eta aparte dagoen sukaldearekin saltzen da. 619 31 85 85.

Karro-denda. Erraz muntatzeko da. 685 71 71 34.

Ordenagailua salgai. Pentium IV. Pantaila 17". Aukera oso ona. 400 eurotan saltzen dituzte. Igor. 669 28 05 30.

Posturazko kanarioak saltzen dituzte. Oso bitxiak dira. 685 72 01 86.

806. GALDU

Aretxabaleta. Zortzi urteko mutikoak musikako ikasgaiak dituen paper-zorroa galdu du. Beltza da. 649 55 48 10.


Betaurrekoak. Uarkapetik Pablo Urangara doan aldpant. Armazoi fina dute. Zorroa grisa da. Graduatuak. Alfonso. 665 72 46 24.



Juan Ormaetxea eta Cristina Galdos urriaren 12an ezkondu ziren, orain dela 50 urte, Aramaion. Horrelako egun garrantzitsua ospatzeko hemen inguruko familia elkartu zen Basterralden eta bazkaria egin zuten. Zorionak, senideen partetik.



Jesus Garcia eta Felisa Nogal Burgosen ezkondu ziren orain dela 50 urte. Urrezko etzeiak ospatuko dituzte, beraz, urriaren 16an, familia artean. Zorionak, etxeko guztien partetik.



Gaizka Gallastegi eta Amagoia Akizu urriaren 15ean ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Ondoren, bazkaria Belaustegi jatetxean egingo dute. Zorionak, familiako eta bereziki Oierren partetik.



Alejandro Virumbrales eta Elena Fernandez Bergaran ezkondu ziren urriaren 6an, orain dela 50 urte. Urrezko etzeien ospakizuna ere Bergaran egingo dute urriaren 15ean. Zabala jatetxean bazkalduko dute senideekin. Familiako partetik, zorionak eta urte askotarako!



Bernardina Zubillaga eta Daniel Iparragirre Antzuolan ezkondu ziren 1955eko urriaren 12an. 50 urteren ostean, urrezko etzeiak etxekoekin ospatuko dituzte. Familia osoaren partetik, zorionak egun berezi honetan.



Unai eta Oihana arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira Arrasateko San Juan Batailatzailea parrokian. Bazkaria Arrazolako Makatzeta jatetxean egingo dute. Ondoren, etzei-bidaian Argentinara joango dira. Zorionak, bikote, koadrilako partetik.

ESKER ONA

Luis
Iturbe Milikua

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 9an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.

*Beti izango zaitugu gogoan.
Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak.*

Arrasaten, 2005eko urriaren 14an.



ESKER ONA

Agapita
Bilbao Azaola

Benito Saez Goikoetxearen alarguna

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 9an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko urriaren 14an.

ESKER ONA


Luis
Esnaola Telleria

2005eko urriaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.

Zure anai-arrebak:
Jose(†) eta Begoña; Joakin eta Joxepi;
Karmen eta Julian(†); Kristi(†) eta Angel (†);
Bitxori eta Angel; Joakin(†) eta Pilar;
Consuelo(†) eta Donato(†); eta Maria.

Betiko gure bihotzean.

Bergaran, 2005eko urriaren 14an.



URTEURRENA

Mariano
Otero Iregi

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urriaren 15ean,
19:30ean,
Aretxabaletako Parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Agustin
Urrutia Zubizarreta

Bigarren urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an, 12:00etan,
Aretxabaletako Parrokian.

*Emazteak, seme-alabek, familiak
eta lagunek ez zaitugu ahazten.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Luis
Esnaola Telleria

2005eko urriaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.

Zure ilobak:
Fernando, Tere, Patxi, Julian, Tatxo,
Jokin, Koldo, Jesus Mari, Mari Paz,
Mari Tere, Jose Ramon(†), Jose Angel,
Joakin, Luis Mari eta Maite.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Bergaran, 2005eko urriaren 14an.



URTEURRENA

Maria Encarnacion
Betzoke Urtain

Lorentzo Biainen alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gloria
Ortega Delgado

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Maria Josefa
Zugasti Retegi

Señorita Mari

Donostian hil zen, 2005eko abuztuaren 9an, 90 urte zituela.

Haren arimaren aldeko
meza domekan, urriaren 16an,
11:30ean, Antzuolako
Errukizko Amaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik
asko Antzuolako bere lagun eta ikasle izandakoen izenean.

URTEURRENA

Benita
Otxoa de Angiozar Berriolope

Juan Alberdiren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Martina
Agirre Bengoa

Serafin Zurbanoren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Bitxori
Gutierrez Olaiz

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Ramon
Agirre Heriz

Markinan hil zen 2004ko urriaren 15ean, 46 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan,
urriaren 16an, 11:00etan, Markinako
Andra Mari Xemein parrokian.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Isabel
Gurrutxaga Lizarralde

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Asuncion
Zumelaga Azkarateaskasua

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Kafearen tratamendua oso egokia da sabeleko koipea erretzeko.

Kosmetikatik haratago

47 urte ditut, 67 kilo pisatzen dut eta 1,55 metro garai naiz. Tripa handia daukat eta jateko gogo handia. Zer egin dezakedan galdetu nahi dizut kilo batzuk kentzeko. Ditudan bi tripak kendu nahi ditut. Masajeekin ken daitezkeela esan didate. (Gure amaren izenean idazten dizut, hark ez du ariketarik egiten eta asko jaten du, batez ere, txorizoa, urdaiazpikoa eta gailetak).

ultrasoinuz lagunduta kafearen tratamendua, koipea erretzeko. Tratamendu hau boro-biltzeko honako hauek ere gomendatzen dizkizut: Berreskuragailu elektronikoa, Termoterapia selektiboa estimulatzaile pasiboarekin. Azken hau koipea kentzeko eta ehuna tinkatzeko. Tratamendu honekin eta zure partetik zertxobait jarrita emaitza onak lor ditzakegu. Gustura emango dizut informazioa.

Ainara.

Ainararen amari:

Lehenik eta behin, nire kontsultatik pasatu gai honetaz hitz egiteko. Hasteko, zure elikadura ohiturak aldatu egin behar dira (honek ez du esan nahi dietarik egin behar duzunik) ondo jaten ikasteko: horrela, 5 kilo ken daitezke erraz. Onura ekarriko du zure estetikarako eta osasunerako.

Zure bi tripak kontua beste gauza bat da, bost kilo galitzen badituzu argi dago zure tripa ere jaitsi egingo dela. Baina sabelari forma emateko eta muskulatura berreskuratzeko -kirola ez dizut aipatu ere egiten, zure alabak esan digu nagia zarela- oso interesgarria da

Hogeita bost eta berrogei urtetik aurrera gure metabolismoak aldaketak jasaten ditu. Ehunak konpontzeko nutriente gutxiago erabiltzen ditu eta hauek koipe moduan gordetzen ditu (gure gorputzak ehuna konpontzen jarraituko balu lehengo moduan, geroago zahartuko ginatke). Hori gehitu behar diogu janariaz gehiago disfrutatzen dugula adin honekin eta ariketa fisiko gutxiago egiten dugula. Hori horrela, koipea tripan eta izterrean gertatzen da emakumeen kasuan eta urdailean, sabelean eta gerrian gizonen kasuan.

Neurriak lehenbailehen hartu behar dira; esfortzua txikiagoa da eta epe motz eta luzerako emaitzak azkarragoak eta hobeak dira.





Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Gauza, tresna		Baretasun, sosegu		Neonaren ikurra
	Martxan		Atomo kargatu		
	*Izena				
	Infin., hasi				
*Deitura	Abeltegaia, itoia				
Latorrizko ontziak	Urratu				
				Litioa (alderantziz)	
				Leku atzizkia	
Mustatu, gozatu					
R hirutan					
		Gizonezko izena			
		Sumendiaren aho			
Itsas ugaztuna				Polizia nazi	
Argi-izpi				Miatuz	
			Mondragon Uni.		Bizkaiko badia
			Noren atzizkia		
Hegazti mota	Hegazti mota				
	Infin., heldu				
				Boroa	
				Silaba hinduista	
Erraz eteten dena					
Ur izoztu					
			Sortu zintuena		

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



IDATZI BAI
Literatura

alorrean Euskal Herrian banatzen den saririk garrantzitsuenetako baten jendaurreko ekitaldia amaitu da.

Sarituak prentsa guztia du aurrean. Kazetari gazte batek egin dio lehen galdera:

- Zer egin behar da maila horretako literatur sari bat irabazteko?
- Idatzi! —izan da idazlearen erantzun lakonikoa—.
- Idatzi bai..., baina nori?

ARDOA ETA MUGA

Frankismoaren garaietan gertatutakoa omen da honako istorio hau.

Tuterako futbol taldeak adiskidetasun partida bat jokatu behar zuen Baionako talde baten aurka.

Jokalariak eta zaleak autobusean sartu eta Baiona aldera abiatu ziren. Garai haietan bidaia luze samarra egiten zen, eta normala den moduan, janari ugari eta egarria asetzeko 50 bat litroko upeltxo bat hartu zituzten.

Mugara iristerakoan, sardina zaharrek autobusa geldiarazi eta barrukoa ongi miatu ondoren, ardoa ezin zutela pasa adierazi zieten.


Eta orduan, Polvora deitzen zioten tuterarren arteko xelebreenak:

- Ezin dugula ardoa pasa? Ikusiko duzue bada orain, pasatzen den edo ez!

Handik ordu laurdenera zeharkatu zuten muga tuterarrek, ardoa sabelean zeramatela!

SOLUZIOAK

A	M	A	R	U	E
R	O	K	N	E	
B	A	E	A	H	A
A	N	A	R	I	
	U	M	R	A	I
S	S	A	K	O	
I	N	U	R	R	
U	T	A	S	D	
L	L	A	K	L	A
	A	E	H	P	
	J	O	S		
A	B	I	A		
	L	O			



Urriaren 17a: 060 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, urriak 17, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Urriaren 17ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

EIBAR-CASTELLO

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

059
zozketa

saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Elgetako ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN urriaren 14an izango den 666 antzerkirako

- Ainhoa Kortabarria Plazaola (Oñati)
- Jose Joakin Gomez Pescador (Bergara)

Bi gonbidapen Elgetako ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN urriaren 18an izango den musika kontzertu berezirako

- Jose Antonio Villar Oiartzabal (Arrasate)
- Maripi Manzidor Ramirez (Antzuola)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Andoni Miguel Quintero (Aretxabaleta)
- Bittor Berraondo Alberdi (Antzuola)

GOITBko ikus-entzuleek aukera izango dute sariak irabazteko ikasturte berrian

Urrian hasitako programazioaren jarraitzaileak sarituko ditu GOITBk

GOIENKARIA

Saio ugari estreinatu ditu GOITBk eta saio berrien izenak zeintzuk diren galdetuko diete telebistakoek ikus-entzuleei. Horrela, datozen hilabeteotan GOITBko ikus-entzuleek sariak irabazteko aukera izango dute. Nolabait, ikusleen fidelotasuna sarituko du telebistak.

Gero eta gehiago dira Debagoienean GOITB begiratzen dutenak, eta, fidelotasun horri erantzun nahian, sariak banatuko ditu ibarreko telebistak datozen bi hilabeteotan. Saio berrien promozio kanpainan buru-belarri dabilta Goiena Telebistakoak, eta, kanpaina horren baitan, sariak izango dira ikus-entzule fidelentzat.

Honako hauek izango dira sariak: TVC-Berthen telebista bat (14 hazbete), eta Asturias edo Kantabrian bi gaueko egonaldia bi lagunendako, Eroski Bidaia agentziaren eskutik. Hori bai, sariak eskuratu nahi dituenak Goiena Telebistako programazioa ezagutu beharko du.

GOIENKARIAN ETA SMS BITARTEZ

Ikus-entzuleek programa berri baten izena bidali beharko dute SMS bidez edo bestela GOIENKARIAko txartelak bete beharko ditu. Eta SMS bidez nola bidali? GTB idatzi (hutsunea), saioaren izena jarri eta 7505 zenbakira bidali. Nahi beste txartel edo mezu bidali ahal izango dira.

Txartelak jasotzeko azken eguna azaroaren 9a izango da, eta SMSak bidaltzeko azken eguna, berriz, azaroaren 11. Irabazleen izenak azaroaren 14ko *Astehenekoa* Goienkaria-n emango dira aditzera. Beraz, datozen egunotan adi jarraitu beharko duzue GOITB.



'Didjeridu'

EGUAZTENA / 22:15

Debagoieneko gazteek badutelako zer kontatu!

Ez dira ospetsuak, sarritan euren herrikoek ere ez dituzte ezagutzen, baina, egia esan, gazte interesgarriak dira oso. Horregatik, GOITBk euren propio sortu du *Didjeridu* saioa. Ibarreko gazteei egindako elkarrizketak dira. Lanbide interesgarria dutelako, zaletasun bitxiak dituztelako... Azken batean, badutelako zer kontatu.

Gainera, elkarrizketa guztiak gazteendako interesgarri diren erreportajeekin osatutakoak dira. Hala, sexualitatearen, zinemaren, teknologia berrien eta musikaren gaineko

tarteak aurkituko dituzue. Teknologia berrien tarte Mainer Arregi kazetariak aurkeztuko du. Sexualitateaz, berriz, Arrasateko sexologia bulegoko arduradunak Larraitx Arando sexologoak, hitz egingo du.

Elkarrizketa guztiak gazteendako interesgarriak diren erreportajeekin osatuko dira



'Behazulo'

EGUBAKOITZA / 21:15

'Behazulo' itzuli da, egitura eta dekoratu berriekin

Ikasturte berriaren hasierarekin batera itzuli da *Behazulo* saioa, itxuraldatuta.

Orain arteko ibilbideari jarraituz, gaurkotasuneko gai bat izango du saioak ardatz, eta gai horretan adituak diren pertsonak platoan izango dira, beste behin saioaren aurkezle lanak egingo dituen Goitz Aranaren galderei erantzuteko prest. Tartean, denetariko erreportaje, irudi eta adierazpenak entzun eta ikusi ahal izango dira. *Behazulo*-k ordu erdi iraungo du, eta gaurkotasuneko gaiak luze eta zabal

jorrazteko bidea emango du. Aste honetako gaia mikologia izango da. Jose Mari Larrañaga izango da platoan, eta Aretxabaletako Baster-Alden plater goxo bat prestatuko dute perretxikoekin.

Gaurkotasuneko gaiak luze eta zabal jorrazteko bidea emango du saioak

TELEBERRIAK

Tolosaldeko Telebista Gabonetarako hasiko da emititzen

Toki telebista euskaldunek beste kide bat izango dute Gabonetarako. Kontua da Tolosaldeko Telebista antenan jartzeko azken lanak egiten ari direla une honetan. Goierrri Telebistako arduradun eta GOITBko zuzendari ohi Jon Aldanondo ari da, besteak beste, telebista berriarekin hasteko ahalegienen. Epeak betez gero, aurreneko emisioak Gabonetan egingo dituzte.

Ile-apaindegiak eta jantzi dendak GOITBko saioak apaintzen

GOITBko saioetako aurkezleak ibarreko zenbait jantzi denda eta ile-apaindegik jantziko eta orraztuko dituzte. Albistegiko aurkezlea, azken urteotako ohiturari jarraituz, Lasagabaster jantzi dendak jantziko du. *Berbaire* saioa aurkezle Marijo Deogracias Gorka ile-apaindegiak orraztuko du eta jantziak Urkiola dendakoak izango dira. *Ilupean* saioa aurkezlea Azul de Rizosen orraztuko dute eta Udalaiten jantzi.

Burtsa tarte estreinatu du Goiena Telebistak oraingo astean

Eguraldia eta zerbitzuak tarte berezian, burtsaren gaineko informazioa eskainiko du Goiena Telebistak. Informazio eguneratua izango da eta Oñatiko Urisu aholkularitza zerbitzuak eskainiko du. Hain justu ere, Rafael Kortabariaren hitzetan jasoko dugu burtsaren gaineko kronika. Japoniako, Ameriketako Estatu Batuetako eta Europako burtsa garrantzitsuenen berri emango die GOITBko ikus-entzuleei.

TELEBEGI/Eneko Azkarate

'16 mm'

Ez dira garai onenak zinema aretoendako. Laurogeiko hamarkadan bideoaren agerpenak min handia egin zion. Gaur egun, oster, DVDak eta kopia piratek ixtera behartu dute hainbat zinema areto, bai hiriburuetan eta baita geurean ere. Aurkako testuinguru honetan, halere, aurten bost euskarazko film luze errodatu dituzte eta *Aupa Etxebeste!* estreinatu berriak publiko gaztearen saria irabazi du Donostiako Zinemaldian. Gainera, dagoeneko 25.000 ikusletik gora ditu eta euskarazko film batek inoiz izan duen ikusle kopurua gauditze bidean doa.

Film luzeak egiteko, ordea, beharrezkoa da laburretan trebatzea eta errealdore gazteendako ezinbesteko bultzada film horiek erakustea, hau da, jendeak ikus ditzala. Zinema aretoetan aukera handiegirik ez daukagunez, GOITBren *16 mm* saioaren bitartez ikus ditzakegu. Euskarazko film laburrak erakutsiko dizkigute, protagonisten azalpen eta guzti. Eskerrik asko, Amagoia eta Txin, horren saio ona egiteagatik.

ZETA

Hika Teatroa

ANTZERKIA

Non:
Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:
Urriaren 16an, domekan, 19:30ean.

Euskaraz



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**
Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**
Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Maier Irazabal/ Spinningeko irakaslea

Zenbat ordu pasatzen dituzu egunero spinninga, aerobika eta antzerakoak egiten? Martitzenetan, adibidez, zazpi ordu; astelehene-tan eta eguenetan, bost.

Sasoian zaude, orduan. Derrigorrez.

Non ematen dituzu aurten eskola horiek?

Berrizen, goiz eta arratsalde. Bergaran, Eibarren eta beste toki batzuetan ere eman ditut.

Zenbat urte pasa dira hasi zinenetik?

Spinninga irakasten, adibidez, hiruzpalau urte daroatzat, baina duela 6-7 urte

hasi nintzen aerobika eta sasoiari egoteko gimnasia ematen.

Ze arropa jantzi behar da horretarako?

Spinning egiteko, adibidez, kulot onak eramatea garrantzitsua da, bizikletaren eserlekua gogorra da eta. Goian, edozein niki jantzi daiteke. Gainerako ariketak egiteko, berriz, edozein praktika eroso.

Arropari kasu handiegia egiten dio jendeak?

Ez horrenbesteraino, baina denetarik dago.

Modak agintzen du ikastaro hauetan ere?

Bai. Orain, adibidez, pilates dago modan.

Horixe egin gura du jendeak eta eskaerari egokitzen naiz ni. Aerobika, aldiz, aspaldikoa da, baina jende askok egiten du oraindik ere.

Ze musika erabiltzen duzu ikastaroetan?

Aerobikean garrantzi berezia du musikak, eta prestatutako CDak daude. Spinningerako, ordea, neuk aukeratzen dut.

Koreografia ere zeuk prestatzen duzu?

Bai, musikari jarraituz.

Ipurdiko minarekin joaten da jendea etxera?

Hasieran, bai. Hala ere, bizikleta normalean baino tenteagoa da spinningeko postura.

Estresa uxatzeko edo kiloak kentzeko egiten du jendeak?

Izerditu egin gura duelako. Kaloria asko galtzen dira, baina kiloak kendu gura dituenak afaria ere zaindu behar du gero.

Zer jaten duzu zuk afaltzeko?

Denetarik. Baina saiatzen naiz barazkiak eta karbono-hidratoak hartzen.

Zure martxa jarraitzen du jendeak edo handikerietan ere ibiltzen da?

Mutilek, adibidez, handikeria handiagoa dute, nire ustez. Ondoan neska bat baldin badute, gura izaten dute erakutsi gehiago ahal dutela eurek neskek baino. Neskak, aldiz, beldur handiagoa dute eta aginduak errazago jarraitzen dituzte.

Masajista zerbitzua ere izaten duzue?

Ez, tamalez, baina ez litzateke gaizki egongo.

Tabernako lanak erabat utzita dituzu?

Bai. Lan lotua da batetik, eta erantzukizun handikoa bestetik.

Nahiago duzu barraren kanpoaldean egotea?

Bai. Tabernari lana ere izugarri gustatzen zait, baina langile moduan, erantzukizunik barik.



“Kaloria asko galtzen dira ikastaro hauetan, baina kiloak kendu gura dituenak afaria ere zaindu behar du gero”

“Mutilek handikeria handiagoa dute eta puztu egiten dira ondoan neska bat badute”

“Modak agintzen du ikastaro hauetan ere, eta jendearen eskaerari egokitzen naiz ni”

► Elgeta / 32 urte / Berrizen irakasten du aurten

PIPERRAUTSA

GOITB

Begietako gaitz batek eder bihurtzen du urrinekoa, eta arrunt bertakoa. Hamalau esaten zaio gaitz horri, intxaurren kontu hura goioan.

Goiena Telebista sartuko da, urritik aurrera, CIES enpresaren audientzia neurketan. Bikain! Ze, audientziez gain, neurtuko da ea debagoiendarren artean zenbateraino dagoen hedatuta hamalau sindromea. Hau da, urrineko telebistak eder, bertakoa arrunt. Badut curiositatea.

Lehendik ere sendo ari bazen, GOITBk berrikuntza handiak izango ditu hurrengo denboraldian: oso nabarmen-tzeko dira ia hamabi orduko emisio etengabea, eta orduoro egingo den albistegia. Uste dut bete-betean asmatzen dutela horrekin. Emisio jarraitua da ezinbesteko baldintza audientzia harrapatzeko; eta albistegiak, tokikoaren balio nagusia.

Kontua da, jardunean, telebista oso profesionala daukagula ibarrean, eta ez dakit behar adina konturatzen garen. Hain da profesionala, esportagarri ere izan zitekeen. Zergatik ez du eman behar Euskatelek bere sare osoan GOITBren seinalea? Zergatik izan behar du gureak arrunt euskaldunentzat? Zertarako hamalau?

ETB1 egurtzen dugu, batzuetan arrazoi onez. Baina ETB1en arazo nagusia da euskaraz bakarria dela, eta euskaldun guztiak ase behar dituela. Baleude gehiago euskaraz, zapping egiten dugunean, aukera gehiago legoke audientzia euskalduna harrapatzeko euskarazko kateetan.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13
 ARRASATE
 943 79 50 78